



ARGIA

***“Kantua bizi dadin,
tartea utzi behar zaio entzuleari,
agindurik eman gabe”***

GORKA URBIZU

14-18. orrialdeak

2.857 | 2024 / 02 / 04 | 4,00 €



**Gaeko trenak:
hegazkinaren
alternatiba astiro doa**

12 | INGURUMENA



**Euskarazko
komunikazioan
nabarmenduak**

24 | ARGIA SARIAK 2024



**Burokraziak
zarratutako sormen
espazioa Donostian**

42 | KONTENEDORA



AMILLUBI

LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m² lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurak izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

www.amillubi.eus

Biolur
Gipuzkoa
Herriaren Ekologisten Elkartea

+ 27 eragileren babesarekin

LURRA
HERRIARI
DEIKA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | MAIALEN ARTEAGA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | NEREA IBARZABAL

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
JANIRE ETXABE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


24 | ARGIA SARIAK, IRAUTEKO BORROKA EGIN DUTENENTZAT

2023an euskarazko komunikazioan nabarmendu diren lanak saritu ditugu urtarilaren 26an Usurbilgo Atxega jatetxean. Itsaso Zubiriak azaldu ditu zein lan eta zergatik izan diren hautatuak, eta Urko Apaolazak eman du ARGIAko mezua: "Erresistitu eta erein". Dani Blancok argazkitan jaso du bilgune izan zen ekitaldiko giroa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | GAUEKO TRENEN AUKERA?

AHT eta hegazkinaren arteko lehiatik ihesi, ziztu bizian

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | GORKA URBIZU

"Desazeleraziorako mezu inplizitua du diskoak"

Reyes Ilintxeta

34 | NAZIOARTEA | LARA VILANOVA

"Estatu Islamikoko emakumeekin zubiak eraiki genituen elkarrizketarako"

Aitor Aspuru

42 | KULTURA |

DONOSTIAREN KONTENEDORA

Sorkuntzari trabak, kultur hirian

Gorka Peñagarikano

46 | KULTURA | MUSIKA

"Pantomima" ikuskizuna Euskadi Orkestran

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soruluze, Bego Zuz

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Ez da inoiz joan

Donald Trumpek ia irabazita dauka hautagai izateko lasterketa Alderdi Errepublikanoan. 77 urteko aberaskumeak 91 kargu penali egin behar die aurre, besteak beste, kolpismoa eta emakume baten bortxaketa, baina zigortuz gero haren jarraitzaileen %60k baino gehiagok dio bera babesten jarraituko lukeela. Establishment-aren ustelkeriak, AEBen gainbehera geoestrategikoak munduan, hedabideen sinesgarritasunaren hondoratzeak, pobrezia eta langabezia hazkunde esponentzialak hauspotzen jarraitzen dituzte supremazismo zuria, arrazismo estrukturala, abortuaren aurkako taldeak, fanatismo erlijiosoa, heteroaraua edota politikaren banalizazioa, non eta Mendebaldeko demokraziaren ustezko 'itsasargian'. Eta bestela, plana ez bada ondo ateratzen, beti geratuko da indarkeriaren karta, oso litekeena dena epaitegiek Trump hautagai izateko desgaituko balute.

📷 Trumpen jarraitzaile bat haren ekitaldi batean. **PATRICK FALLON / AFP**

🔗 **AXIER LOPEZ**



Baionatik Parisera, laborarien mugimendua zabaltzen ari da

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Herbehereetan, Alemanian, Frantziako Estatuan, Errumanian, Eslovakian... Laborariak karrikan dira Europako hainbat herritan. Herbehereetatik abiatu, zabalduz doa mugimendua, bakoitza bere aldarri propioekin, baina etsipen amankomun partekatuekin. Desagertuz doan sektore horretako langileak gaizki direlako ekonomiko-ki –Frantziako Estatuako laborarien %26 da pobrezia langaren azpian– eta go-goia ilun ere dutelako maiz –bi egunero laborari batek bere buruaz bertze egiten du Frantziako Estatuan, MSA laborarien elkartasun kutzaren datuen arabera–.

Azken hogeitun urteetan hamabost milioitik hamar milioira pasa da Europako etxaldearen kopurua eta ondoko 15 urteetan beste 6,4 milioi dira desagertuko, Europako Parlamentuaren *The Future of the European Farming Model* ikerketaren arabera. Hau da, 35 urtez 11 milioi baserri dira desagertzekoak –bi herenak baino gehiago–, eta Euskal Herriari dagokionez ere joera bera da. Hala ere, ekoizpena etengabe emendatuz joan da, agroindustriaren garapenak bermaturik. Merkatuaren liberalizazioa, laborantzaren mundializazioa eta agribusiness-aren etekin bilatze itsua dira gaur egungo krisiaren erantzule. Testuin-

Protesten presioak eraginda, laborarien aldeko neurriak agindu ditu Emmanuel Macronen Gobernuak, urtarrilaren 29ko astean

guria azaltzeko orduan erran beharra dago Fnsea eta JA Jeunes Agriculteurs (Laborari Gazteak) sindikatuek sutsuki defendaturiko eta akuilaturiko agroindustria dugula logika ekonomiko horien bermatzaile.

Hori horrela, ezinegonak bultzaturik eta sindikatuen deiari erantzunez, izan afiliatu edo ez, geroz eta laborari gehiago dira Frantziako Estatuako eta Baiona inguruko errepideetan. Ipar Euskal Herrian, Baiona inguruko errepideak blokeatzen aritu dira, baita Baionako portua ere. Oro har, abiadura handian zabalduz doa mugimendua eta Paris ere blokeatzeko mehatxua zabalduz dute.

Fnsea-k eta JAK ondoko aldarrikapenak eraman dituzte gobernura: "berehalako" laguntza finantzarioak eta arauen gutxitzea, horietan ingurumenari lotu-

rikoak –"Green deal-aren eta plagintza ekologikoaren inkoherentziatik ateratzea"–. Merkataritza askerako itunen negoziaketan bukaera galdetzen dute ere.

ALDARRI EZBERDINAK BAINA BORROKAN BATURIK

Bere aldetik, laborantza iraunkorraren alde dabilen Confederation Paysanne sindikatuak ere deitu du protestara: "Adierazitako haserrea zilegia da, nekazarien lanaren ordainsarien arazoa ikaragarria delako. Orain dela 25 urte, liberalismoaren ondorioak salatzen ari zen jada Confederation paysanne, Larzac-etik Seattleraino".

Egoeraren larritasunak ekarri du sindikatuen bateratze ezohiko hori. Hain zuzen, Fnsea eta JAK azken hamarkadetan sustaturiko laborantza ereduak talka egiten diolako Confederation Paysanne sindikatuaren eredu herrikoi eta agroekologikoari. Krisiaren larritasunak eta laborarien ezinegonak dakarte guztiak daudela karrikan eta gobernuarekiko negoziaketetan.

Berehalako bi aldarri entzunarazi ditu Confederation Paysannek: ekoizpen kostua baino apalagoak diren prezioen bukaera eta merkataritza askerako itun ororen negoziaketan bukaera. Arazoa bere orokortasunean hartu eta Fnsea-ri kritika egiten dio: "Gobernu ezberdinek eta Fnsea-k dute laborantza *impasse* egoera honetara eraman, sistema ekonomiko ultraliberal, bidegabe eta suntsitzaile batera eraman gaituzte". Transizio ekologikoa bultzatzeko neurriak galdetzen ditu sindikatu honek.

Gabriel Attal lehen ministroaren ustez, Italia eta Espania bereziki lehia desleiala egiten ari dira Frantziari. Produktuak merkeago joaten dira Frantziara eta horrez gain, bi herrialde horietako produktuek ingurumen-neurri malguagoak dituzte. Kontuak kontu, protesten presioak eraginda laborarien aldeko neurriak agindu ditu Emmanuel Macronen Gobernuak, urtarrilaren 29ko astean. ●



Oihu



UXUE APAOLAZA LARREA

Eta zortea baduzu, uneren batean, gelditu, eta gai zara zeure buruaz ez fidatzeko. Zu eta zeure burua, aurrez aurre; zertan ibili zara, ez al zara arauz gogoratzen, zer dagoen ondo, eta zer ez, zer geruza ari da hain inozo, hain erasokor, hain ezer ikasi ez bazenu bezala. Eta dena kontatu behar diozu berriro zeure buruari, bakoitza bere aldetik ibili zaretenean egin duena, eta narrazioa izango da bakoitza garearen araberakoa, eromena ere ez baita bera neure buruan, edo zeurean. Neure eroak isilean behar luketen beldurrak oihukatzen ditu. Oihuka eskatzen du maite dezaten. Horregatik kasu egiten diet baxuago hitz egin behar nukeela esaten didatenei (benetan oihuka ari banintzen; ero isilek ezin dituzte oihulariak jasan, eta prebentiboki errieta egiten diete). Oihuek, baina, beldurrek, ordea, ez dute maitasunik sortzen gehienetan, oihartzunak eta ihesak baizik.

Oihuka jartzen zizkiguten Europako lurra zapaltzen zuten migranteak, basati; eta halaxe erakutsi zizkiguten, oihuka eta basati, zulatzen ari zena beren azala zenean ere, hesian hilik ere oihuka, baita tiro artean itotzen ere. Palestinarrek oihu egiten dute, itsusi, eta isildu ez den emakumeak, edo, hil dutenean, haren familiak, matxinatu diren presoek, ijitoek, lumadunek, Hugok eta Cristinak, oihu egiten da manifestazioetan, oihu egiten du jaioberriak. Eta ez dute egiten Europak, Israelek, zuriek, burokraziak, kartzeleroak, helduek, normalek.

Manerak dira bakeari eusteko lehen frontea, manerak dira eroak galtzen duen lehena, bakea da erotzen duena, bakeak ez duelako oinarririk, teorikoren bat agian, enpirikorik ez. Manerak isilean dira. Baxu dira. Igo eta jaisten diren mikroekin dira. Inprimaki bat dira. Botoi bat sakatuz dira. Hitz luze eta aspergarriak dira. Abandonatuz dira. Botereak ez du oihu beharrik.

Isiltzeko eskatu aurretik, deseroso zaudelako, entzun oihu egiten duenari. ●



Sexu erasoak

Gizon bat atxilotu dute Tolosan, osteopatia kontsultategi batean sexu erasoak egitea leporatuta. Salatutako bi kasuetan, erasoak biktimak kontsultan bakarrik zeudenean gertatu ziren. Gertaturikoa salatzeke elkarretaratzea egin zuten, Itaiak deituta.

Gazte mugimendua

Zestoako Elizondo eraikina gaztetxe berri gisa okupatu zuen Gazte Asanbladak. Eraikina Elizaren jabetzakoa da, eta gotzaindegiak gaztetxearen aurkako prozedura abian du. Protesta ekintzak nagusitu dira azken asteetan.

Elikadura

Ikastetxeetan jantoki-zerbitzua ematen zuen Serunion enpresari kontratua eten dio Eusko Jaurlaritzak, ikasturtean zehar enpresaren jantoki-zerbitzuak hainbat ikastetxetan sortutako "arazoengatik". Tamar, Auzo Lagun eta Goñi enpresak arduratuko dira jantoki-zerbitzuaz.

EKONOMIA

Zein da jomuga



ULA IRURETAGOIENA

Eraikinak albistegiaren lehen lerroa etorri dira; batzuk eraikitzen hasiak direlako, honakoa eraitsi egingo delako eta hangoa, eraikitzea posible egiten duen bidea asmatu bitartean, eraikina izango ez delako, oraingoz. Guztietan, eraikina polemikaren erdigunean, eraikina boteretsuen, jauntxokeriaren eta politikagintzaren jostailutxo bilakatu delako. Arkitekturak ezer gutxi inportatu du eraikinaren konplot hauetan. Ez du interesik eraikinak zer-nolako argitasun espazioak izango dituen, nola erlazionatuko den sarrera inguruarekin, zein izaerako afektuak sortarazi ditzakeen jakiteak edota ea eraikuntza sistemak berrikuntzarik dakarren galdetzeak.

Arkitekturari muzin egin arren, arkitekto eta politikariek bat egiten dute gauza batean, biek sinisten dute eraikin batek egoera bat aldatzeko duen gaitasunean. Baina eraikinen bertutea zikinduta gelditzen da arkitektoak eraikina bere super-egoaren manifestaziora zuzentzen duenean edota politikariak bozkak emango dion komunitate baten alde egiten duenean. Agian antzerkiaren ikusle garenon haserrea leunduko luke eraikinaren erabileraren aitortza entzuteak, lotsagabekeriaren ekintza ausarta bat sikiera. Dela laguntasuna, diru-inbestitza, jauntxoren batek bere aitari egindako promesa edo arerioa ahultzeko estrategia. Eraikinaren eraikuntzak gizatasuna irabaziko luke, akaso. Kontrara, miseria diskurtsiboa entzutea tokatzen zaigu: “Eraikin berriak kulturaren alde egingo du, ekonomia-eraren ziztatzailea izango da”.

Denok konprenitu dezakegu eraikin batek ahalbidetu ditzakeela gertaera asko, lagungarri izan daitekeela loturak katalizatzen. Espazioa gertakizunen lotzaile eta sustatzaile izan daiteke, beti ere, eta hemen dator marra zuzentzailea, “baldin eta giza-testuinguruak horretarako ehundurarik badu”. Testuinguruaren onarpenik gabe, eraikina ekintza inposatzaile bilakatzen da, hezurdura garesti bat, ez arkitekturarik ez agentziarik ez duena. ●

ANALISIA



Mozkorturismoa

LEIRE ARTOLA ARIN

Hasi da txotx denboraldia, eta herritarrek ilusioz ekin diote sagardotegietako upeletan ondutako uzta dastatzeari. Ezin huts egin urteroko errituari, euskal kultura bultzatzeko eta bizitzeko modu honi. Baina tradizio oro, nahi edo ez, aldatu egiten da, eta ohituraren funtsa lausotu egiten da maiz, *sidreroen* ikusmena tragoz trago lausotzen den bezala. Nola transmititu zaie belaunaldi berriei txotx denboraldia? Nola ulertzen dute egungo sagardozaileek –edo, besterik gabe, parrandazaleek– sagardotegiko zita?

“Urtariletik apirilera, asteburuero, esperientzia honetaz gozatu nahi duten adin guztietako pertsonen betetzen dira herriko kaleak”. Hala deskribatzen du denboraldia Hernaniko Udalaren webguneak. Ordea, kaleak bete baino gehiago, azken urteetan kaleek gainezka egiten dute, eta badirudi Astigarraga eta Hernaniko espazio publikoak *sidreroentzat* erreserbatuta daudela hamalau bat astez jarraian. Erraz esaten da: ia lau hilabete etengabeko festa erraldoian, mugarik nahi ez duen jende mozkorrez lepo.

Astigartar eta hernaniar askok ere festa nahi dute eta sagardoaren kultura gogoko dute, baina euren herrian hori egitea ukatzen zaie. “Larunbat arratsaldetan gure herrietako bizilagun asko euren bizitokitik kanporatuak sentitzen dira”, berretsi dute Astigarragako eta Hernaniko udal ordezkariak *Hartu ardura* kanpainaren aurkezpenean, eta ohartarazi dute “bizikidetzaz arazoak” sortzen dituela jendetzak. Txotx denboraldia eskuetatik joan zaiela onartu dute bi udalek, eta 2024ko denboraldia hasi berritan egoera kudeatzen laguntzeko bilera bat eskatu diete Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Baina badu atzera bueltarik *gehiegikerien denboraldi* bilakatu den honek?

Begi-bistakoa da herriak ez daudela prest astero milaka turista sagardozaile jasotzeko. Autobusak saldoka, oihuak eta zarata gau eta egun, pixa bazter –eta erdiguztietan, sagardotegien neurri jan eta edan ez duenaren oka plaza erdian, apartakutako autoak apurtuta... eta larriena: era guztietako erasoak. *Sidreroz* betetako kale eta tabernak ez dira segurua ez emakumeentzat, ez LGTB komunitateko pertsonentzat, ez pertsona arrazializatuentzat, ez gutxiengoaren parte den inorentzat ere. *Ez da sagardoa, zu zara. Hartu ardura* kontzientziazio kanpainaren bitartez erasoak saihestu nahi dituzte udalek. Baina urteroko kartel eta iragarkiek eragina dute alkoholaren eta beste drogen aitzakian erasoak egiten dituztenengan?

Sagardotegien kultura harro bultzatu da urteetan, eta bertako turistak nahiz kanpokoak erakartzeko goxoki aparta izan da. Arazoa da ez dela neurririk hartu turismo hori jasangarri egiteko, halakorik posible bada. Orain, egoera erabat kontrolatik kanpo dagoela, zaila da litroak edatera datozen *sidreroei* atzera egina-raztea. Nola mugatu herrirako jarduera ekonomiko garrantzitsua dena? Nork jarri behar ditu *mozkorturismoa* onbidertzeko tresnak? ●

%1

baino gutxiago izan da 2023an euskaraz ikusi ahal izan diren zine emanaldiak, Hego Euskal Herriko areto komertzialetan. Jatorriz euskaraz diren 4 film baino ez dituzte estreinatuta; gaztelarazkoak 564 izan dira. Neurriak eskatu dizkiote administrazio publikoari.

2

urte beteko ditu Polonian preso Pablo Gonzalez kazetariak, otsailaren 28an. Egoera salatzen eta libre utzi dezatela eskatzeko manifestazioa deitu dute Gernikan, egun horretarako.

%13

baino gehiago da aukeratu gabeko bakardadea sentitu duen biztanleen kopurua 2023an, Espainiako Estatuan. Aukeratu Gabeko Bakardadearen Behatokiaren datuak dira.

“Gure hiru urteko alaba ere hil zen mediku batek larrialdietan ikusi gabe”

CAMILA LOPES ETA UNAI ORDOÑEZ

Laudioar bat larrialdietan hil ondoren, Lopes eta Ordoñezek haien alaba Helenaren kasua ekarri dute gogora: 2020an hil zen eta, besteak beste, ez zuen mediku baten diagnostikorik jaso Etengabeko Arreta Gunean.

AIARALDEA (2024-01-25)



“GURASOEK HARMAILETATIK ARBITROARI, SEME-ALABEN AURKARIARI EDO ENTRENATZAILEARI IRAIN EGITEA NORMALIZATZEAN HASTEN DA INDARKERIA”

Eskola kirolek irainak ezabatzeko asmoz, protokoloa abiatu dute Araban.

2024-01-23

“Palestinatik eskatzen digutena Israeli boikota egitea da”

ALAITZ AMUNDARAIN BDZ Araba.

Joan den asteburuan, manifestazio nazionala izan da Ordizian, “Sionismoarekin konpliziterik ez! CAF Palestinatik kanpora!” lelopean.

HALA BEDI (2024-01-23)



TEKNOLOGIA

Negozioa, negozioa da?




DIANA FRANCO

Zein da negozioa? Zelan egin ekonomiki jasangarri jarduera bat? Bada beste gizakiak esplotatu barik ekonomiki jasangarria egin daitekeen jarduerarik? Bada gure sistema ekonomikoan, diruak sortzen duen mendekotasuna eta opor dinamikak eraldatzeko modurik?

Azken astean, negozioa sortzeko bidean, pertsonengan eragin ezberdinak dituzten eta teknologiarri lotuta dauden bi berri izan ditut. Alde batetik, ChatGPT gerrarako eta militarki erabiltzeko debekua kendu egin duela OpenAIk. Intercep webgunean irakurri dut berria, eta bertan Sarah Myers West AI Now institutuko zuzendariak esan duenez, "Gazako zibilei erasotzeko adimen artifizial sistemak erabiltzen direnez, OpenAIren erabilera politikatik 'militarra eta gerra' hitzak kentzea erabakitzeko une egokia izan da".

Bestalde, kapitalismoak darabiltzan teknologia eta negozio ereduak erabilia, dinamika kapitalistaren alternatiba bila dabil-tzan gizarte eremuko erakundeek honako galdera dute buruan: sortu daitezke pertsonak esplotatu beharrean boteretuko dituen negozio eredurik? Kontsumitzeko modua asko aldatu da, Internet bidez gehiago erosten dugu. Internet bidez kontrataturiko zerbitzuak handitzen doaz, baita lanerako pertsonak bilatzeko moduak ere. Dinamika horretan, lan ezberdinetan espezializaturiko plataformak agertu dira: janaria leku batetik bestera eramango dizuten pertsonak kudeatzeko plataformak, autoz leku batetik bestera eraman zaitzaketen pertsonak kudeatzeko plataformak... Prekariatatea egozten zaie, plataforma horietako lan egiten duten pertsonak tresna huts baina ez baitira. Nola eman buelta errealtate horri? Prestakuntza gutxiko laneskua beharko luketen zerbitzuak eskainiz, teknologia modu intentsiboan erabiliko luketen langileen esku egongo lirakeen plataforma bidezko negozio ereduak sortzea helburu. Egungo kontsumo eredueta egokituz, teknologia eskaini ditzakeen onurak aprobetxatuz eta langileak boteretuz. Ez dut argi egingarria denik: zelan izango duzu boterea, eragin ezin duzun teknologia baten baitan lan egiten duzunean? ●

NAZIOARTEA



Genozidioa da, baina lasai

AXIER LOPEZ

Nazioarteko Justizia Auzitegiak berretsi egin du Hegoafrikaren akusazioa, Genozidioari buruzko Konbentzioari jarraiki. NBEko auzitegiak Israeli agindu dio ekintza genozida oro eragozteko eta Gazara laguntza humanitaria sartzea bermatzeko.

Epaia sendoa da, 17 epaileetatik gehienek bozkatu dute Hegoafrikak eskatzen zituen premiazko neurrien alde. Baina ez du esplizituki agintzen Gazaren aurkako eraso militarra eteteko. Eta horixe da, hain zuzen, Benjamin Netanyahu ospatu duena, eta gaineratu du "Hamaseko munstroen aurkako gerra bidezkoa" egiten jarraituko dutela, "erabateko garaipena lortu arte". Hamasek adierazi du Hagako auzitegiaren erabakia aurrepau garrantzitsua dela, "okupazioa isolatzen eta Gazako krimenak agerian uzten laguntzen duelako", eta Israel xedapen horiek betetzera behartzeko eskatu du.

Beraz, Israeli armak eta bestelako materialak saldu dizkioten estatuek kontu eman beharko lukete. Israelgo kolonialismo, apartheid eta okupazio militarren edozein alderditan parte hartu duten enpresa eta erakundeek entitate sionistarekiko harreman oro eten beharko lukete. Etxetik hasita, CAFek estatu genozidarekin dituen proiektuak bertan behera utzi beharko lituzke. Baina hori, beste mundu batean gertatuko litzateke, bizitza negozioaren gainetik legokeen mundu batean. Ez honetan.

KONTRAERASOA

Hilabete honen hasieran Netanyahu oso argi azaldu zuen gertatuko zena: "Inork ez gaitu geldiaraziko, ez Hagak, ez Gaizkiaren Ardatzak, ez beste inork". Eta hala, Israelek berehala erreakzionatu du. Errefuxiatu palestinarren sostengurako lan egiten duen Nazio Batuen UNRWA taldearen kontra jo dute Hagako epaia jakin bezain pronto. Zein da argudioa? Israelek erabiltzen dituen maila eta sakontasun berekoa: Nazio Batuen erakunde horretako langile batzuek Hamas babestu dutela diote. Hau da, ostiralean Nazio Batuek diote "genozidioa", eta larunbatean genizidek diote Nazio Batuetakoak terroristak direla. Tristeena da Tel Avivek euria behetik gora egiten duela esanda ere, Mendebaldeko mariatxiek segituan musika jarri diotela gezur sionistari. AEB, Kanada, Australia, Italia, Erresuma Batua, Alemania, Herbehereak, Suitza, Finlandia, Japonia, Austria eta Frantziak eten egin diote finantza-zioa UNRWARI. Hagako epaitegiak esandakoari baino genoziden hitzari men egin diote. Argigarriago ezin.

Sarritan erakutsi digu supremazismo israeldarrak Daviden izarraren puntan jartzen zaiona egin dezakeela inolako ondoriorik jasan gabe, baina azken hilabeteotan marka guztiak hautsi ditu. Nazioarteko legalitatea, Giza Eskubideen Nazioarteko Ituna buru, paper bustia dela berretsi dute, baldin eta legearen urratzailea Mendebaldekoa edo haren laguna bada. ●

EHUren eraikinetako baldintzak salatu dituzte

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  UIB



"Hotza pasatzen dugu, kalefakzioa gero eta beranduago piztu eta gero eta lehenago itzaltzen dute, eta ikerlari batek kontatu digu fakultate bateko eta besteko bulego askotan matxuratuta daudela berogailuak, eta berogailu elektriko txikiak pizten dituztela, legez kanpokoak, arriskutsuak izan daitezkeenak", kontatu dio ARGIAri Miren Aranguren EHUko ikasle eta UIB (Unibertsitateko Indar Batasuna) taldeko kideak. "Ez da bermatzen modu erosoan ikasi eta lan egin ahal izatea", kexu da. Salaketa klaustrora eramana du UIBk, eta arazoei aurre egiteko aurrekontua egina zutela erantzun zieten arren, "orokorrean ez zaie konponbiderik eman; itoginek urteak daramatzate. Eta horren ondorio da adibidez Magisteritza fakultatean gertatu dena, hezetasunen eta itoginen ondorioz azkenean sabai zati bat erori da, eta ez da lehen aldia sabai eta horma zatiak erortzen direna.

Azpiegiturak

Basque Culinary Centerren Donostiako bigarren egoitza eraikitzeari ekin zioten joan den astean, eta SOS Manteo elkarteak salatu du zuhaitzak botatzen hasi zituztela obrak. Auzotarren arabera, espaloiko zuhaitzak ez zirela ukituko agindu zieten bizilagunei.

Euskara

Orkoingo alkate sozialista Alejandro Lopezek euskalduna izatea pribilegio bat dela esan eta gero, PSNko hautetsiak euskara sustatzearen aurkako gero eta adierazpen gehiago egiten ari dira, hala Eguesibarren nola Tafallan.

Animaliak

Donostian, Bilbon, Iruñean eta Espainiako Estatuko hiri ugarritan ehiza-jardueraren aurka mobilizatzeraz deitu du "No a la caza" plataformak, otsailaren 4an. Ehiztariek erabiltzen dituzten txakurrak Animalien Ongizaterako Estatuko Legean sartzea exijitu dute.

GAUEKO TRENEN BIGARREN AUKERA? AHT ETA HEGAZKINAREN ARTEKO LEHIATIK IHESI, ZIZTU BIZIAN

Gaueko tren bidaia arruntak desagertu egin ziren duela urte batzuk ia Europa osoan, airezko garraioaren mesedetan. Baina larrialdi klimatikoak hegazkin kutsagarriak alboratzera eraman du jende asko orain, eta ordu txikitako tren sarea berriz ere martxan jarri nahian ari dira distantzia ertainera dauden hainbat hiriren artean. Ez da lan erraza izango, politika publiko sendorik gabe, lehiaren eta konkurrentziaren zepoan eroriz gero.

 URKO APAOLAZA AVILA

Badirudi diligentzien garaira itzuli garela”, hala dio Anne Tannék, 80 urteko amonak, abenduaren 25ean gaueko tren konbentzionalean egindako bidaia kontatzen duenean. Arratsalde hartan, Okzitaniako Aurillac hiriko geltokira joatean ustekabea jaso zuen: Parisera eraman behar zuen tren a ez zen aterako hondatuta zegoelako. Bera eta beste 50 lagun autobusez eraman zituzten lehenik Brivera, eta han ordubetez bainugela giltzarrapoz itxita zeukan sala izoztu batean zain egon ondoren, “erreskaterako” tren a iritsi zen goizeko 01:30ean. Libre zeuden toki bakanetan eserarazi zituzten, eta hurrengo egunean Paris-Austerlitzeko geltokira iritsi ahal izan ziren, baina ez zuten inolako konpentsazio ekonomikorik jaso.

Haserre, Annek alkateari idatzi zion, baita diputatu bati ere. *La Montagne* tokiko egunkariak jaso du salaketa eta Huffpost albiste agregatzaile ezagunak zabaldu du. Gaueko tren “mitikoaren” errebantxa izan dela leporatu die emakumeak agintariei, makineria zaharkituarekin egiten baitira bidaiak, eta bere ustez “exajerazio mediatiko” bat egin da gaueko trenaren itzulerekin: “Kea besterik ez dira”. Urrutiko intxaurrek hamalau, gerturatu eta lau.

2023ko abenduan Frantziako Garraio ministerioak jakinarazi zuen trenbide sare arrunteko gaueko lau tren berriz

martxan jarri zituela, tartean Aurillac-Parisekoa eta baita Baionatik Parisera –Tarbe eta Orthezetik barrena Euskal Herri ratzen den *Le Pyrénéen* ezaguna– joan etorrian ibiliko zen beste bat ere. Ez die pozak askorik iraun Eurodisney ikusteko plana egin a zuten euskal familiei edo halabeharrez lanera edo hamaika tramite egitera Parisera joan behar duten herri tarrei. Hilabete igaro ez denean, arazoak etengabeak dira, eta Baiona-Paris trenaren kasuan, jadanik ez dabilela irakurri dugu Urdin Euskal Herria irratia ren web-gunean: “Hitz emandakoa ez da bete”.

Duela urte batzuk, 1980ko hamarkadan, Europa osoa tren-sare zabal batek lotzen zuen eta posible zen gauez hiri batetik bestera joatea inongo arazorik gabe. Frantzia n soilik, gaueko 30 linea zeuden eta 550 geltokitan geratzen ziren. Kilometro askotara zeuden herri eta hirien artean bidaiatzeko modu ohikoena zen tren a.

Baina agintari e k Abiadura Handiko Tren garestian dirua gastatzen hastea rekin, sare konbentzionala abandonatuta utzi zuten, eta *low-cost* hegaldien zabalpenak eman zion azken sastada. 2010eko hamarkadan apenas geratzen ziren gauez zirkulatzen zuten bi tren Frantziako Estatuan.

Hala kontatu digu *Socialter* aldizkari kritiko erradikalean Joséphine Maunier Berlinen bizi den *freelance* kazetariak

2022ko ekainean idatzitako *Les trains de nuit s'éveillent peu à peu* (Gaueko trenak esnatzen ari dira apurka-apurka) erreportaje an.

EGUNSENTIAREKIN SENA-N

Orain, gaueko trenak distantzia erdiko bidaien alternatiba gisa erabiltzeko aldarrikapenak indarra hartu du berriz ere. Ez bakarrik hegazkinek baino askoz gutxiago kutsatzen dutelako –hegazkinek 14 eta 45 bider artean CO2 gehiago isuri dezakete, Europako ingurumen agentzia ren txosten baten arabera–, baita aireportuetako kontrol eta atzerapen gogaikarriak saihesten direlako eta bidaiariak lo gozoan doala denbora –eta hoteleko dirua– aurreztu dezakeelako, egunsentiarekin trenak Sena ondoan uzten duen bitartean.

“Bidaiari e k jadanik ez badituzte gaueko trenak hartzen, kendu egin zituztelako da”, azaldu dio *Socialter*-eko kazetariari *Oui au train de nuit!* (Gaueko trenari bai!) kolektiboko kide Quentin Marsalek. 2017. urtetik kanpaina batekin ari dira eta 200.000 sinaduratik gora bildu dituzte gaueko tren zerbitzuak berriz martxan jartzea eskatzeko: “Eskaerak balio du [gaueko trenaren] itzulera legitimatu eta demostratzeko bidaiari kopurua ez zela izan hura desmantelatzeko arrazoia”.

Kolektibo horren esanetan gaueko bidaiak martxan jarri eta trenbide sare



EUROPEAN SLEEPER

EUROPEAN SLEEPER Herbehereetako kooperatibak crowdfunding bidez lortu du dirua Brusela eta Berlin artean gaueko trena martxan jartzeko. Benetako inbertsio eta politika publiko sendoen gabeziak zail jarri dizkie gauzak halako trenari, hegazkinen bidaiatzea baino askoz jasangarriagoa izan arren.

konbentzionala hobetzeak 130.000 lanpostu sortuko lituzke. Baina Eguberri egunean Aurillaceko Anneri gertaturikoarekin ikusi bezala, bidea ez da erraza trenarentzat...

Hasteko, inbertsioa falta da: makina zaharkituei gehitu behar zaie oraindik elektrifikatu gabe dauden trenbideetan diesel lokomotorak erabili beharra. TGV lasterraren sarea gauez usatzea ere debekatuta dago, mantentze lanetan aritzen direlako. "Haien helburua da SNCF enpresa errentagarri bat egitea, TGV bezalako zerbitzuetan zentratu", dio Marsalek.

Badago beste paradoxa bat, eta da gaur gaurkoz hegazkin konpainien eskaintzak gaueko trenena baino askoz merkeagoak

direla, garraio kutsagarriagoa izan arren. European hegazkinen ez dute kerosenoari jarritako zergarik ordaintzen –karbono dioxido isurtzaile nagusienetakoa–, ezta BEZ-a ere. Trenek, aldiz, gastatutako energiagatik, trenbidera sartzeagatik eta beste hamaika konturengatik ordaindu behar dute.

Egoera hori ezin da inolaz ere justifikatu, Espainiako Greenpeaceko Cristina Artojaeren aburuz: "Estatuek zergak murriztu behar dituzte, zerbitzu publiko bat dela aitortu eta trenbidera sartzeko kanonak kendu", azaldu dio El Diario.es egunkari espainiarrari, *Ballena Blanca* ingurumen atalean. Baina fiskalitate justuagoa ez ezik, botere publikoen mentalitate aldaketa behar du trenbide sareak,

konkurrentziaren eta lehiaren dinamika zoro horretatik aterako bada, esaterako distantzia labur eta ertaineko hegaldiak debekatuta.

Bitartean, Europako hainbat tokitan herritarrak dira ekonomia sozialetik trena bultzatzen ari direnak. Gaueko zerbitzuak eskaintzen dituen Nithjet konpainia austriarraz gain, *Ballena Blanca*-k aipagai du 2023an martxan jarritako beste proiektu bat: European Sleeper kooperatibak crowdfundinga egin du Brusela eta Berlin gauez lotzeko asmoz, eta 1.700 lagun babsa izan du tren linea berriak. Hori bai, 1970eko hamarkadakoak diren bigarren eskuko bagoi *vintage* alokatuetatik begiratu beharko dute bidaiariak paisaia, agian bidea delako helmuga. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Gorka Urbizu

MUSIKARI-PUSKA



DESAZELERAZIORAKO MEZU INPLIZITU BAT DAUKA DISKO HONEK, AZALETIK HASITA



Berri ona eman digu Urbizuk. Berri Txarrak lozorroan utzi eta lau urte geroago bere bakarkako lehen lana plazaratu du: *Hasiera bat*. Hamar kantu biluzi guri eta bere buruari galdetzeko zertan eman dugun bizitza, azaltzeko nola mundu honetan azkarregi eta ikusmenak itsututa bizi garen edota ohartzazteko nola ohitu garen mantxa gorri

bat ikusten itsasoan zabaltzen. "Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude eta ez da gauza bera, nire adiskide". Eta *Janela bat* (leihoa) ireki digu barne-tik kontatzeko nola amak bina plater jartzeko eskatu dion gaur egongelan bazkaltzeko edo nola batzuetan *I love you* idazten diogun elkarri, maite zaitut batek ikaritzen gaituelako.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zure diskoa ilbeltza argitzeko moduko sorpresa polita izan delako jende askok...

Bai, oso harrera ona izaten ari da. Azken unera arte ezkutuan gorde nahi izan dut eta behin plazaratu ondoren, jende guztiaren esku nahi nuen disko osoa.

Orain ohikoa da kontrakoa eta espektatiba handiak sortzen dira kantu berrien inguruan. Saltzen dena ilusioa da?

Klabea hori da. Orain askotan, diskoa atera izana baino gehiago, jende askok

nabarmentzen du nola egin eta plazaratu den. Horrek zer hausnartua ematen du. Nire ustez, *hype* horrekin edo sortzen den ikusmin horrekin kantua atzeko lerroetara bidaltzen ari zara, nolabait. Ematen du estrategia eta saltzeko modua dela garrantzitsuena eta horretan jartzen dela indarra. Batzuetan algoritmoek eta sare sozialek hori eskatzen digute, edukiak sortu eta ikustaldiak pilatu, baina azkenean musikariari interesatu beharko litzaiokeen muina kantua da. Ni oso astuna naiz horrekin, baina badirudi aldiro gogoratu beharreko zerbait dela.

Kantu hauek destilazio prozesu luze baten emaitza dira?

Bai, hala da. Lau urte pasa dira Berriren azken kontzertutik eta kasik zazpi nire azken grabaketatik, baina sentitzen dut disko hau ez dela izan azken urte haue-tako emaitza, baizik eta ibilbide osoa beharrezko izan dela honaino iristeko eta disko gordin eta biluzi hau atera ahal izateko. Berriren 25 urteko zurrunbiloa-ren ondorengo urte horietan kontzertu pila ikusi dut, asko irakurri dut, bidaia-tzen ibili naiz eta input horiek guztiak jaso ditut orain kantu hauek ontzeko. Bilaketa lan sakona izan da eta dena dago



Gorka Urbizu Ruiz

LEKUNBERRI, 1977



Mutikotan pianoa eta esku-soinua jotzen ikasi zuen Larraungo Aralar Musika Eskolan. Herriko elizan organoa jotzen zuen eta arrebarekin batera haien kantu propioak aurkeztu zituzten Nafarroako Haur Kantari Txapelketako hainbat ediziotan. 14 urterekin Nahita Nahiez taldean teklatu jole hasi zen eta 1994an Berri Txarrak taldea sortu zuen. 25 urte, bederatzi disko eta milatik gora kontzerturen ondoren “ikusi arte” esanez amaiera eman zioten Berriren ibilbideari, COVID-19ak eragindako konfinamendua hasi baino hiru hilabete lehenago. Peiremans eta Katamalo proiektuen parte izan da eta kolaborazio ugari egin ditu. Azken aldian produktore lanak egin ditu La M.O.D.A. eta Leihotikan taldeekin.

hemen. Horregatik sinatu dut nire izen propioarekin. Horrekin ere zalantzak izan nituen, presio handia delako norbere izenarekin ateratzea, baina gero ikusi nuen koherentea zela proposamenarekin.

Zergatik kantu biluziak, gordinak?

Nik nahi ez dudana da rock talde bategatik datorren abeslari baten disko akustiko tipikoa. Nahi nuen bueltatxo bat eman, zerbait desberdina eskaini eta kantu hauek jantzi, edo biluztu, beste modu batez. Sinpletasun horren atzean gauza asko dago. Jantzea zaila da, baina zailagoa da biluztea. Grabaketa ere oso soila izan da, zortzi pistarekin, oso elementu gutxirekin eta beti kentzea eta kentzea eta muinera jotzeko helburuarekin.

El Petit de Cal Eril taldeko kideengana jo duzu disko hau egiteko. Zergatik?

Haien soinua izugarria iruditzen zaidalako. Talde honetako kide den Jordi Matasen atzetik ibili nintzen eta berak proposatu zidan Teatre de Ca l’Erilen grabatzea. Gainera bidali zidan Big Thief, nik asko maite dudana taldearen argazki bat han grabatzen, eta orduan hartu nuen erabakia. Tokiak xarma berezia du. Lleidak Gissona herriko 1904ko antzoki zaharra da, ez estudio hotz bat, eta hori nabari da diskoan.

Grabaketan nahiko sufritu zenuela esan duzu askotan. Zergatik?

Jordi Matasek egin du ekoizpena eta bera tematu zen estudioan bertan eraiki behar zirela kantuak. Entsegu oso gutxirekin sartu ginen grabatzerara eta gure eztabaidak izan genituen horren kontura. Niretzako hau oso disko garrantzitsua zen eta Jordik esan zidanean ez zuela entsegurik egin nahi, freskotasuna mantentzeko eta estudioan gerta zedin gertatu beharrekoa... ez nekien jenio batekin edo alfer huts batekin ari ote nintzen. Alerta egoera horrek sormena pizten dizu. “Hau daukat eta ez dut borrago marik. Ea zer gertatzen den”, pentsatzen duzu.

Azkenean hori dena diskoaren aldekoa izan da eta batasun estetiko itzela eman dio. Oinarrizko ideian bai egon garela beti ados guztiok: beti kentzearen eta kantuak soiltzearen alde egin dugu. Sar zitezkeen biolinak edo koroak edo teklatura eta oso polita

geldituko zen... baina beti esku-frenoarekin ibili gara gauzak bata bestearen gainean ez jartzeko.

Eskulturaren bezala, soberan zegoena kentzea zen ideia?

Bai eta literaturan bezala. Nik Raymond Carver miresten dut eta gauza bera egiten du. Pello Lizarralde ere hitzaren ekonomiaren aldekoa da. Hori da niri gustatzen zaidan estiloa. Hor dagoena zerbaitengatik da.

Berri Txarraken azken kontzertuan liburuak eskatu zenizkien zaleei.

Liburu guztiak irakurtzeko aukerarik izan duzu?

Ez! Jaso nituen agian 300 liburu. Liburutegi oso bat. Izugarri polita izan zen. Berririo egingo dut beste batean, agian bira honetan.

Lau urte hauetan hainbat kolaborazio egin dituzu Anne Lukin, Monte del Oso, La M.O.D.A. edo Leihotikanekin. Nolako izan da tarte hau?

Nebulosa moduko batean egon naiz. Behar nuen atsedena, hori berresten dut, hala ere Berri lozorroan utzi genuenean beldur nintzen hilabete batzuk pasata, barneko harrak ez ote zidan eskatuko berririo eszenatokitara itzultzea. Txaloelek asko engantxatzen dute eta batzuetan egoa ere hor tartean dago. Hori kudeatzea ez da erraza, baina ni eroso eta lasai egon naiz. Ekoizpen lanak ere egin ditut La M.O.D.A. eta Leihotikan taldeekin, batez ere laguntzen saiatzen den musikari bezala, ekoizle moduan baino. Asko ikasi dut. Orokorrean bilaketa prozesu luze bat izan da eta emaitzarekin oso pozik nago.

Diskoa Hasiera bat da eta kantu gehienek izenean ere bat agertzen da: Tren bat, Toki bat, Etxe bat... Zergatik?

Izen orokorra argi neukan, baina kantuen izenekin ez nengoen oso gustura. Diskoa entregatzeko zegoela, azken unean halako epifania bat izan nuen eta izen guztiak aldatu nituen. Kantuei batasuna emateko eta transzendentzia kentzeko modu bat iruditu zitzaidan: hau disko bat da, baina beste mila daude. Gustatzen ahal zaizu ala ez.

Nolako da?

Hau patxadaz egindako diskoa da eta,



beharbada, patxadaz entzutekoa ere bai. Disko honek desazeleraziorako mezu inplizitu bat dauka, azaletik hasita. Hor agertzen da emakume bat atsedean hartzen bezala eta jendeak eskertu duen gauza bat izan da ematen duen sosegu puntu hori.

Niri interesatzen zaizkidan diskoak dira munduarekin eta egungo errealitatearekin konektatzen nautenak edo kontrako efektua sortzen didatenak: mundutik ihes egiteko burbuila moduko bat direnak. Nik uste dut disko honek bietatik duela. Nire ikuspegi kritikoa agertzen da kantu batzuetan, baina beste batzuk, aldiz, besarkada moduko bat direla esan didate askotan. Aterpe edo babes soniko hori, hainbat kontzertutan sentitzen duzuna bezalakoa da, mugikorrarekin dena grabatzen ari ez bazara, noski.

Bob Dylanek bezala mugikorrak debekatuko dituzu kontzertuetan?

Hain erreza balitz! Debekatu ez baina gonbita eginen diot jendeari gordetzeko, zalantzarik gabe. Nahi nuke jendeak kontzertuak hor bertan bizitzea.

Musika eszena nola ikusten duzu Euskal Herrian?

Taldeen aldetik oso interesgarri ikusten dut. Aniztasuna beti egon da, baina aldea da orain fokua ez dagoela aldarrikapen letra duen rock gogor horretan. Badaude talde batzuk oso ezagunak ez direnak, neurri handi batean, algoritmoen errua-rengatik. Hori pena da, baina aldi berean

bada hor azpian humus bat oso interesgarria. Oso proiektu interesgarriak daude eta Iruñea aldean zer esanik ez. Loraldia. Hortik aurrera, obsesionatu egiten gara mundu mailan egiten dena hemen eta euskaraz egitearekin. Betiko kezka da. Gure ekosistema kulturala oso ahula da eta asko daukagu hobetzeko. Hala ere, sentitu behar dugu gu gaur egungo gauzak egiten ari garela eta ahal den kalitate gorenarekin. Munduari begira ari garela, munduaren parte sentituz.

Azkenaurreko hitza

GRABATZEKO ERRAZTASUNAK

“Hor ere indibidualtasuna ikusten da. Duela 20 urte denak ziren taldeak eta orain kontrakoa da. Zuk ikusten badituzu oraingo jaialdiak %80 bat dira bakarlariak. Talde asunto hori asko jaitsi da. Erraztasunak daude zure etxean zure gauzak grabatzeko, baina lokal batean lau lagun biltzea ja ez da horren ohikoa. Horrek eskatzen du elkarrekin egotea, elkar entzutea eta elkar ulertzea, agian orain bogan ez dauden gauzak. Hor ere bada zer hausnartua”.

Hizkuntzaren aferak bai kezkatzen nau. Gutxieneko atxikimendu bat behar da eta horretan uste dut atzera goazela. Normaltasuna horren urruti daukagunean, naturaltasuna beste irizpide guztien gainetik jartzea autotranpa egitea dela iruditzen zait. Argudio horrek ez nau asetzen. Norberak egin dezala nahi duena, baina uste dut euskaldun eta euskaltzaleok badugula ardura bat gure kalitatezko edukiak sortzeko euskal eszena eta euskal korpus hori hazi dadin. Guk ez badugu elikatzen inork ez du egingo. Badakit motxila edo ardura hori oso nekagarria izan daitekeela, Ruperrek zioen bezala “inork ez zigula esan euskaldun izatea zein nekeza den”. Badakigu egin behar dugula hizkuntza hegemonikoan egiten den lanaren bikoitza edo hirukoitza oihartzunaren erdia lortzeko, baina hala da. Gu beti egongo gara korrontearren kontra arraunean eta gauzak hobetzeko lana gogor egin behar da.

Teoria bat kantuan diodan bezala “gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude” eta guk bultzatzen egiten dezakegu gauzak aldatzeko. Hori da gure borroka nagusietako bat, baina argi dago bizimodu azkar honek bere ondorioa ere baduela hizkuntzaren aferan.

Borroka horretan nola laguntzen dute kantuek?

Hau oso naifa izan daiteke, baina diskoa ateratzear zegoela buru-jan batzuk eduki nituen. Gazakoa gertatu zenean nik pentsatu nuen “zer nabil ni hemen nire disko honekin, halako izugarrikeriak gertatzen ari diren bitartean? Gizon zuri pribilegiadun honek egindako diskoak zer ekarpen egin dezake? Honek ba al du zentzurik? Edo entretenimendu hutsa da? Nik sinesten dut arteak mundua eraldatu dezakeela edo bultzatzen dezakeela behintzat. Sinesten dut artea kontzientzia harrazteko tresna bat dela eta basakerien aurrean edertasun dosi txiki bat eskaintzeko modu bat.

Edertasunaren bitartez agian lor daiteke jada komunikabideek nekez lortzen duten erreakzioa...

“Ikusmenak itsututa gaude” esaten du *Tren bat* abestiak. Dena sartzen zaigu begietatik eta irudien gaindosia dugu. Ematen du musika ere begietatik entzuten dugula. Gazakoa bezalako basakerietara ohitu egiten gara. Albiste lazgarri batek hiru minutuz asaldatzen gaitu eta hurrengoan agian meme bat ikusi eta irri egiten dugu...

Mundu honetan [Javier] Milei motozerra batekin dago, baina disko hau ere badago eta hau da nik egin dezakedan ekarpena. Sortzaileok jendeari pentsarazi behar diogu, behintzat.

Kantuen hitzak erreka bat pasatzeko jarritako harriak bezalakoak direla esan zenuen hemen ARGIAN, duela hamar urte...

Bai, nik fokoa ideia baten gainean jartzen dut, baina gero norberak har dezala bere modura. Panfletorik ez dut egin nahi. Egin izan ditut, hori ere ikasten da, baina orain argi daukat kantua bizi dadin utzi behar diozula margen bat entzuleari, agindurik edo aholkurik eman gabe. Disko honetan, adibidez, bada kantu bat oso pertsonala, *Etxe bat*. Nire bizitzako oso parte intimoa erakusten dut eta pentsatzen nuen, "nori inportako zaio hori?". Nire txakurra, nire gurasoak, iloba, zeinen azkar pasatzen den denbora, batez ere adin batetik aurrera... Bada, orain ikusten ari naiz jende askori abesti hori izugarri gustatzen zaiola. Debatea eduki genuen estudioan kantu hau sartu ala ez, estilo aldetik pixka bat kanpo gelditzen zelako, baina nire eskarmentuak esan zidan sartu behar nuela. Antzeko zerbait gertatu zitzaidan

Azken hitza

KALITATEZKO 34 MINUTU

"Iruditzen zait gain-esposizio honekin eta abiadura handiko bizi-molde honekin, musika bigarren plano batean gelditzen dela. Musika beste erritmo batekin entzuteko aldarrri bat da disko hau. Kalitatezko denbora eskatzen dut. Agian ezinezkoa den zerbait edo pribilegio bat agian, mundu guztiak ez daukalako horretarako aukera, baina 34 minutu ez baduzu disko honi eskaintzeko, behar-bada hau ez da zure diskoa".

Katedral bat kantuarekin eta gero disko adituena izan zen. Sekula ez dakizu zer gertatuko den. Poztekoa da ikustea nola jendeak bat egiten duen horrekin eta nola kantuak salto egiten duen zure intimitateetik besteen intimitateetara.

Ez dira orain garai onak rockerako?
Ziklikoa da. Orain fokoa ez dago rock

musikan eta hori ondo dago. Nik pentsatu nahi dut indarra hartzen ari dela gero berriz itzultzeko. Orain dagoen nahasketa ere oso interesgarria da. Ni beti egon naiz purutasunaren aurka. Nahasketari esker sortu da guztia. Inportanteena da musika entzutea. Idazteko irakurri behar den bezala, musika egiteko musika asko entzun behar da. Pop disko bat egin behar baduzu kome ni da Beatles entzutea. Pentsatu behar duzu zure aurretik ere jendeak gauza onak egin dituela eta hor dagoela ondare handi bat. Orain dagoen joera hori, bakarrik musika berria entzutearena, nahiko nazia iruditzen zait. Gaztea zaren agian ez zara ohartzen, baina adinarekin bai.

Biran hasiko zarete otsailaren amaieran. Nola antolatuko dituzue zuzenekoak, 34 minutuko disko bat oinarri hartuta?

Buru-haustea izango da kantuen zerrenda osatzea. Peiremans taldearekin antzeko zerbait gertatzen zitzaidan, bost kantuko diskoa atera eta gero zer egin zuzenean? Ez dakit. Bertsioren bat eginen dugu seguruenara, baina iraganeko kantu gehiegi ere ez nuke jo nahi... ●



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

| | | | |
|--------------|------------------|----------------|-----------|
| ABALTZISKETA | ALTZO | EZKIO - ITSASO | OIKIA |
| ADUNA | ANGIOZAR | GABIRI | OLABERRIA |
| AGIÑA | ARROA | IGELDO | ZERAIN |
| AIZARNA | BERROBI | IKAZTEGIETA | ZIZURKIL |
| AIZARNAZABAL | BIDANIA - GOIATZ | ITSASONDO | ZUBIETA |
| ALBIZTUR | EREÑOZU | LARRAUL | |
| ALKIZA | ERREZIL | LIZARTZA | |

bai euskarari zerbitzua euskaraz

www.eskolatxikiak.eus



Independentzia nola?



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Euskal Herriaren eta Kataluniaren independentzia aztergai da atzerrian. Nevadako Unibertsitateak, Renon, Ameriketako Estatu Batuetan, liburu mamitsua argitaratu berri du, ingelesez, *Pro-independence movements in the Basque Country and Catalunya* [Independentziaren aldeko mugimenduak Euskal Herrian eta Katalunian], hiru adituren ardurapean: Xabier Irujo, Queralt Solé eta Antoni Segura. Denetara hamahiru irakasle eta ikerlariren lanak batzen ditu, aipatu bi nazioen independentziarako bidea zertan den arakatu eta beste zenbait nazioen kasuekin konparazioak proposatzeko, tartean Eskozia, Quebec, Flandria edota Groenlandia. Sakon aztertzen dira independentziaren aukerak, eta ondorioetan aukerak neurtzen direnean, badira ondoko hau segurutzat ematen dutenak: “European euskaldunen, katalanen eta eskoziarren errepublikak sortzea sailhestezina da, denbora kontua da”.

Hain ikuspuntu baikorrak, aldiz, kontraste handia egiten du beste alde batzuetatik heltzen zaizkigun azterketa eta balorazioekin. Estatuko zein autonomietako iritzi azterketa soziologiko ofizialek behin eta berriro errepikatzen digute Katalunian zein Euskal Herrian, azken hamarkadetako bizipenen ondoren, independentzia nahia gainbeheran doala herritarren artean. Hori entzun eta jarraian bere politika negoziatzaile eta integratzailearen bertuteak gorai patzen ditu txandako gobernu presidente espainiarrak.

Estatu menperatzaileen eta haien zerbitzarien argudioek ez gaituzte konbentzitzen, baina kikildu egiten dute menpeko herritarren multzo zabala

Indarrean den estatuaren eta hari lotutako erakundeen azterketa horiek ez dira fidagarriak, irakurketa oso interesatuak egiten dituztelako. Askoz hurbilago daude errealitatekin, baita aurrera begirako aukeretatik ere, liburu honetan eskaintzen zaizkigun ikerketak eta emaitzak. Lehenengo eta behin, ez dutelako tranparik egiten aztergaiaren premisetan ez argudio nagusietan. Adibidez: independentzia ezin dela aldebakarreko erabakia izan, diote, baina liburuko adituek argi frogatzen digute estatu inposatzaile horien eraketa bera izan zela aldebakarrekoa eta biolentziaz inposatua kasu guztietan. Eskozian 1707tik aurrera, 1707-1716 urteetatik aurrera Katalunian, eta 1789tik aitzina Ipar Euskal Herrian eta 1833aren ondoren Hego Euskal Herrian. Ondorioz, estatu zapaltzaile horietatik askatu eta estatu propioa eratzea

ere, logikaz, alde bateko erabakimena izan ohi da. AEBetako Independentzia Adierazpenak 1776an zioen eran, “herri bat beste batekin lotu dituen soka politikoak desegitea beharrezko gertatzen denean, nazioek askatasuna lortzeko eskubidea dute”.

Estatu menperatzaileen eta haien zerbitzarien argudioek ez gaituzte konbentzitzen, baina kikildu, uzkurto, egiten dute menpeko herritarren multzo zabala. Hori da gertatzen zaiguna, era tamalgarrarian. Ez kaletarrak soilik, baita politikariak, unibertsitate irakasleak, komunikatzaileak, ikerlariak, iritzi emaileak eta abar ere, maiz bigundu, moldatu, otzandu egiten dira agintarien *diktat* horien aurrean, amen esan eta gezur ofizialak bere egiten dituzte.

Ez alferrik hemendik urrun, AEBetan, argitaratzen dira gure independentziari buruzko azterketa sinesgarrienak. Bertoko aditu eta politikari ez gutxi “independentzia nioen baina orain elkarbizitza diot”, edo “estatua aldarri nuen baina orain hobe estatua berria” eta halakoak esaten entzuten ditugunean. Gogoan izan Gernikako bonbardaketan gertatua ere atzerrian historialari zintzok argitu behar izan zutela, bertokoe, are Gernika bertako batzuek ere, “hildako apur batzuk” egon zirela zioten bitartean, edo “nazi alemanen kontua” izan zela.

Independentzia gurera ekarri behar dugu. Nola? Aditu fidagarriei kasu egin eta geure izanari, nortasunari eta bihotzari jarraituz. ●

Alde egin ala deus ez



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Udaberrian, Iparraldeko Hizkuntz Politika Publikoa berrituko da: hortik, datozen urteetako norabideak, asmoak eta horien zerbitzuko jarririko diren dirutzei buruzko erabakiak hartuko dira eta horretan jarrera argia hartu beharko dute eskualdeak, departamenduak, estatuak eta Euskal Hirigune Elkargoak. Euskalgintza delibero horien zain dago, zintzurra tinko; izan ere, Iparraldean euskarak duen egoeraz kezkatu agertu dira, deiar eginez politika publiko egokiagoaren eta auzartagoaren alde.

Euskararen Erakunde Publikoak hogeitau urte ditu. Hizkuntz Politika Publikoa zaharragoa da, noski, EEPren sorrera aitain hainbat aurrekari ezagutu baititu. Haatik, euskalgintzaren bultzadaz eta instituzioen bidez eraman politika orokorra, molde antolatuan, 2004. urte inguruan hasi dela laburbil daiteke. Institutuzio horren eta ondotik Elkargoaren sorreren ondorioz hainbat aldaketa gertatu dira, baliabide eta lan ildo mailakoak: euskalgintza profesionalizatu da, gaia instituzionalizatu, eta zeregina ez da, geroztik eta ondorioz, militanteena bakarrik.

Bizkitartean, azken inkesta soziolinguistikokoak irakurketa baikorretarako

hari gutxi luzatzen ditu. Aitzinamendu ñimiñoak dira eta batez ere belaunaldi gazteetan kokatuak, hiztun heldu eredugarrien kopuruan eragin gutxikoa eta erabilera esparruen garapen mugatukoa. Kopuruen aldetik euskararen beharrezko joera konfirmatu da: euskaldunen proportzioa apaldu da, elebidun dira %20. Haatik, kopuru horren erdiak dio euskaraz frantsesez bezain eroso sentitzen dela, beraz, euskaldun oso eta aktiboen kopuru erreala %10ekoa ez ote da? Horretaz gain, datuen artean eskas zaizkigu kualitatiboak: nolako gaitasunak ditugu euskaraz bizitzeko? Norainokoak eta zein kalitatekoak? Ikertu gabea eta agian ikertua izatea nahi ez den aldea da.

Bide horretatik hurbiltzen ari gara, uste baino lasterrago, Euskal Konfederazioak duela zenbait urte egin zuen aurreikuspena, zeinetan zioen 2035ean %15ekoa zatekeela elebidunen proportzioa. Horiek ikusirik, bada arranguratzekorik. Izan ere, nolako euskal komunitatea garatuko da lurraldean %10 baizik ez bada gai egunerokoa euskaraz eramateko? Nola egin dezakegu, hiztunen gehiena 60-99 urtekoa delarik, hizkuntzaren geroratzeko eta garatzeko? Nola molda daitezke hiztun amorratu bezain isolatu

horiek euskaraz bizitzeko ez bada *entre-soi* miserablean? Hemen argiki egoera larria baita, ez da diglosia egoera sinplea, ordezkapen aitzinatuarena baizik, desgertzearen heinekoa, orain arteko pauso epelak baino anitzez gehiagoko (erre) medioak beharko dituen.

Azken hilabeteetan, euskalgintzak alarmak piztu ditu: ezin du gehiago. Egoitzak ez dira segurtatuak, irakasle eta langile euskaldun eskasa kronikoa da, egituren baliabideak ahulegiak. Hots, kinka larrian dira denak ere. Artetik, 2000 urte inguruetan, duela 25 urte, ARGIAko zutabe hauetan berean, euskalgintzak arazo eta zenbaki berak aipatzen zituen.

Politika publikoaren egituratzeak eta hogeitau urteko bideak, eta militanteen inplikazio dorpeak, ez dute argiki eragin euskararen berreskurapenean eta normalizazioan. Politikariek –anitzetan erdaldun eta erdaltzaleek– hizkuntzaren geroa eskutan dute eta zirt edo zart egiteko momentua dute. Espero izan dezagun, hautetsiak eta kargudunak itxurakeria eta epelkeriatik aterako direla, eta ezker-eskuin zabaltzen dituzten aldeko diskurtsoen izariko eta ausardia bereko ekintzak ahalbidetuko dituztela. Bestela, kamarada, itsusia datorkiguna. ●



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Etxe bat?

“Udazkenaren ertz batek, maitia, eman dizkit egun onak gure leihotik”. Horrela dio Gorka Urbizuk *Hasiera bat* izeneko bere lan berriko *Etxe bat* kantuan. “Bina plater jartzeko esan dit amak, egongelan bazkalduko dugula”. Hain justu, kantu horretan orain arte idatzi ez duen tokiren batetik idatzi duela aitortzen dio Urbizuk Uxue Rey kazetariari *Berrian* egindako elkarrizketan, oraingo honetan letrak nondik idatzi dituen galdetzerakoan. Kantu hori azpimarratzen du: “Uste dut nire lehengo estiloa asko nabaritzen dela. Aldiz, ikusten dut *Etxe bat*, eta hor bai ikusten dudala badagoela beste zerbait”. Epel, goxo, arrunt, baina berezi deskribatzen du Urbizuk etxe hartan gertatzen dena. Beste edozein etxetan ere gerta liteke, etxerik izanez gero, noski.

Gorka Urbizuren azken lanak erakutsi bezala, *Etxe bat Hasiera bat*-en parte da. Diskoan, zein bizitzan. Bizi proiektua garatzeko ezinbesteko bitartekoa da. Baina ezin hasiera bat idatzi soldataren erdia baino gehiago alokairua edo hipoteka ordaintzera bideratzen baldin bada. Edo putre funtsek luxuzko etxeak egiteagatik, zein etxe turistikoen masifikazioa dela eta, zure herritik alde egitera kondenatuta baldin bazaude. Azken batean, Donostiako alkateak esan zuen bezala “eskisitoa” izatea omen da egun

norbere auzoan bizi nahi izatea (Donostia Espainiako Estatuko hiririk garestiena da, 5.326 euro balio ditu metro koadroak, iaz baino %3,6 garestiagoa da). Hego Euskal Herriko gainontzeko herrialdeen batez besteko kopurua ere beldurgarria da, eta Ipar Euskal Herriko egoera ere ez da xamurragoa. Argazkia antzerakoa da alokairuan ere. Putre habiak eraikitzen ari zaizkigu etxebizitzak eraikitzen ari direlakoan, eta akaso, postaletarako Euskal Herri polita gelditzen ari zaigu, baina euskal herritarrontzat ez da bizigarria den postalik. Geroz eta gauza gehiago dira “eskisitoak” orain hemen: etxebizitza, elikagaiak, argindarra... Ekuazioa honelako zerbait da: herritarrak pobreagoak eta “eskisitoagoak” gara, eta aberatsak, aberatsago.

Gaztelagun edo Emanzipa bezalako dirulaguntza programek ekarpena egin, egiten dute, baina ekarpena egiteagatik arazoa konpontzeko neurririk hartzen ez bada, ekarpenak ezer gutxirako balio du. Merkatu librearen logika irauli eta etxebizitza publikoetan inbertitu beharra dago, politika publiko ausartak ezarri, Euskal Herrian lan eta bizi nahi baldin badugu (duin lan eta duin bizi, behintzat). Eta horrela, akaso, “etxe bat” hasiera bati ekiteko baieztapena izango da, erantzunik gabeko galdera baino lehenago. ●

Kaseteak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Iaz Braham bat ezagutu nuen Delhin. Harritu ninduen garagardoa maite zuela eta gaztelaniaz bazekiela. Nire adintsuko zela esango nuke, baina makil baten laguntzaz ibiltzen zen, poliki. Ea zergatik zekien gaztelaniaz, galdetu nion, eta berak umetan Julio Iglesiasen kaseteak entzuten zituelako ikasi zuela esan zidan. Hasieran gauza erraza izan zela gaztelaniaz ikastea. Hasieran hizkuntza guztiak dira errazak ikasten. Musikak noraino eraman gaitzakeen pentsatu nuen hotelerako bidean. Eta burutara etorri zitzaidan mutil gazte kolonbiar bat, Berri Txarraken *T-shirt*-arekin etorri zitzaidana euskara ikaste-

ko dirulaguntza eskatzera. Aspertuko zela pentsatu nuen, ikaskideak erretiratuak zeudelako guztiak, eta ez zutelako jakingo Berri Txarraken kanta bakar bat ere. Baina udan ikusi nuen, jubilatuekin, garagardo bat hartzen. Pozik zegoela ematen zuen. Eta jarraitzen du euskara ikasten. Pasadizoak burutara etorri zaizkit Jurgi Ekizaren elkarrizketa bat irakurri dudanean: “Negu Gorriak taldea da musikari eta euskal musikari bilakatzeko gogoia piztu zidan proiektua.” Eta ikastolako autobusean txoferrari ematen genizkion Negu Gorriaken kaseteak non ote ditudan pentsatzen jarri naiz. ●

Nevada



NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA

- Zelan zaude, *tio*?
- Txarto, txarto. Makinara lotuta.
- Emango diozu buelta, zu gogorra zara eta.
- Ez dakit, ba. Oraingotan ez dakit.

Horixe izan zen Ameriketako osabarekin izandako azken elkarrizketa. Artzain joan zen Nevadara, aspaldi, eta hantxe sortu zuen bere familia, bere bizimodu berria. Lantzean behin etorri izan dira Euskal Herrira geroztik, baina ez gehiegitan. Behin zahartuta, are gutxiago.

Berarekin eraman ditu, dagoeneko ez baitizkigu kontatuko, Ameriketara iritsi berritan bizi izandako pozak eta penak, hango negu hotz eta bakartiak, eta dirua egin behararen larritasuna. Edo hori irudikatu nuen nik *Amerikanuak* dokumentala ikusterakoan. Ez ziren gutxi izan burua galdu zutenak; askok neguan irabazitakoa xahutzen zuten udan; beste asko zoriontsu bizi izan dira; beste batzuek ez lukete joateko erabakia hartuko, beharbada, berriro jaioz gero.

Migrazio prozesuak bortitzak dira, pobreziatik ihesi doanarentzat batez ere. Euskal artzainak ibili ohi ziren eremu idor haietan langile hegoamerika-

Munduak eta teknologiak aurrera egin dute, baina lanbide gogorak ez dira desagertzen, eta beti da klase sozial bera lan horiek egiten dituen

rrak daude orain. Munduak eta teknologiak aurrera egin dute, baina lanbide gogorak ez dira desagertzen, eta beti da klase sozial bera lan horiek egiten dituen. Pobreen jatorria da aldatzen den bakarra.

Ez dakit migratzaile batek zenbat gauza senti ditzakeen; leku berrira egokitze gogoak edo atzean utzitako lurrraren faltak, zeinek irabazitako duen sotakira. Ziurrenik bien arteko etengabeko

joan-etorri bat izango da. Pentsatu egin beharko da zer hartu eta zer utzi, zenbat oroitu eta zenbat ahaztu, biziraupena jasangarri izan dadin. Gure osabak euskara ederra zeukan, duela 60 urtekoa, bere gurasoek zerabilten berbera, formoletan mantendua. Baina berarentzat gordetzea erabaki zuen, ez zien bere ondorengoei erakutsi. Baliteke gure telefono bidezko elkarrizketa huraxe izatea etxe horretan euskara entzungo zuten azkeneko aldia.

Beti harritu izan nau horrek, norbere seme-alabei norbere jatorrizko hizkuntza ukatzearenak. Badakit ez dela hain sinplea, eta indar asko gurutzatzen direla hor, zer esanik ez hizkuntza gutxituen kasuan. Jakin nahiko nuke zertzuk pentsatu zituen berak, zer sentiarazten zion euskarak osabari. Agian gainera kendu beharreko pisu bat bezala biziko zuen, iragan triste batera lotzen zuen narra zahar bat lez. Edo bere ondorengo amerikarrei ezertarako balioko ez zien berba multzo bat irudituko zitzaion, bestela. Posible da ondorengoek eurek ere interesik agertu ez izana, umetan ikasitako esaldi pare batetik haratago. Ez dakit, eta inoiz jakitekotan, ingelesez kontatuko didate. ●

MATRIKULA ZABALIK

HH, LH eta DBH

SUSTRAIAK SAKON
ETORKIZUNERAKO PREST

San Benito ikastola LAZKAO

Otsailaren 7tik 23ra

ONLINE : ikasgunea.euskadi.eus

IDAZKARITZAN : 943 880 800, hitzorduarekin




Egin zaitez Korrika laguntzailea

APPa deskargatu

EKIN KORRIKARI!

15 euroren truke,
garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei laguntzea.
Horrez gain, pina eta abantailei
buruzko informazioa jasoko dituzu.



æk
23.korrika

HARRO HERRI

Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra



korrika.eus




ARGIA Sariak 2024


Irauteko borroka egin dutenentzat

Negozioak eta interesak zapaltzaileen buruetan. Izan herri bat zapaltzeko, hizkuntza bat, kultura bat, memoria edo ingurumena. Dirua, sosa. Egoerarik makurrenetan ere, ordea, usu pizten da erresistentziaren su txikia, interesen ginetik duin bizi nahi duen jendearen mugimendua. Erresistentziaren sariak izan dira 2024ko Argia Sariak; arlo desberdinetan bada ere, kausa justu baten alde borroka egin dutenei eta borrokan ari direnei aitortza egiteko sariak.

Usurbilgo Atxega Jauregian, urtarrilaren 26an, jaso zituzten erresistenteok Antton Mendizabalen oroigarriak.

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ez ditugu aurka egiteko garaiak bizi. Kontsentsua omen, bilatu beharrekoa. Zubiak eraiki. Eskuak luzatu. Zerbaiten kontra borroka egiteko deiarekin ere kontuz ibili behar, inor deseroso senti ez dadin. Positibotik hobeto, dio zenbaitek –eta epelxeago bada nahia go–. Ados. Egokitu gaitezen garai berrietara. Aldarrika ditzagun duintasunaren, bizitzaren aldeko borroka eta borrokalariak.

IKUS-ENTZUNEZKOA: 'BIZKARSORO'

Herri zapaldu baten nortasunari, hizkuntzari eta herritarrei loturiko istorioa da. Euskararen historia, fikzionatutako herri baten ahotik kontatua. Oinarri erabat erreala duena. Euskal Herriko edozein herri izan liteke Bizkarsoro eta ikuslea herritar batekin ez bada beste batekin identifikatzeko gaitasuna du. Josu Martinezek zuzendutako filma da eta hala esan digu: “Aspaldi interesa-

tzen zaidan gaia da. Nola hiltzen den hizkuntza bat. Joan Mari Torrealdaik egindako lanek (*El libro negro del euskera*, *Asedio al euskera*), edo Koldo Izagirrearenek (*Autopsiarako frogak*), edo Txema Larrearenek (*Euskaldungoa erroizturik*) asko inpresionatu ninduten irakurri nituenean, eta pentsatu nuen, balio lukeela horrekin film bat egiteak. Herri imaginario bat asmatu, eta euskara jendearen erroiztearena kontatzea, belaunaldiz belaunaldi, Ber-





Behean, ezkerretik eskuinera: Arkaitz Artola, Juanpe Urrosolo, Kristina Berasain, Josu Martinez, Hibal Castro eta Amagoia Gurrutxaga. Goian, ezkerretik eskuinera: Fernando Olalde, Katti Pochelu, Harkaitz Cano, Itsaso Zaldunbide, Eider Gotxi eta Zuriñe Gandarias.

toluccik *Novecento* filman XX. mendean zehar Italiako eskualde bateko langile eta burgesen arteko elkarbizitzaren eboluzioa kontatzen zuen bezala”. Eta fikzioak ematen dio indar bat filmari, jendearekin konektatzen eta imaginario kolektibo bat sortzen laguntzen duena.

Jende askorentzat, filma “ahalduntze moduko bat” ere badela azpimarratu du egileak, eta eskola eta institutueta jarriko dute zabalpenerako indarra: “hor bada 'beste jende' pila bat, bihar-

etziko euskaltzaleak izan daitezkeena... edo euskaldun ohiak. Eta badago hor borroka-zelai oso inportante bat”.

Koldo Izagirrek esaten zuen: euskara, hiltzekotan ere, autopsiarako frogak utzita hilko zela. Hil, ez da hil; baina frogak utzi ditu. Froga eta dokumentazio horiek istorio bihurtuta eta baigorriarren inplikazio handiarekin, pantailara ekarri eta memoria ariketa kolektiboa egitegatik izan da ikus-entzunezko saria *Bizkarsoro* filmarentzat.

PRENTSA: 'SAHARA, HERRI BAT ERRESISTENTZIAN'

Geopolitika liburu huts bat baino zerbait gehiago da saritutakoa. Sahararren kontakizunak eta lekukotzak historiaren pasarteekin tartekatzen doazen heinean, iraganetik gaur egun arteko argazki panoramiko bat osatzen du Kristina Berasain kazetariak. “Historia handia istorio txikiekin harilkatzen saiatu naiz, saharar guztiek baitute liburu bat eta saharar batekin

hitz egitea liburu bat zabaltzea bezalakoak baita”, azaldu digu.

Sahararekin “aspalditik kateatuta” dagoela aitortu digu Berasainek, 2005ean, intifada hasi zenean, nazioarteko kazetari moduan Saharako lurralde okupatura sartzeko egin zuen lehen saiakeraz geroztik –saiakera diogu, Aaiundik kanporatu baitzuten–. “Mendebaldeko Sahara zulo beltz bat da. Marokok ez ditu lekukoak nahi, errepresioa itzela baita. Hamar urte geroago lortu nuen lurraldean sartzea eta giza eskubideen ekintzaile sahararrak bertatik bertara ezagutzea. Maiz izan naiz lurralde liberatuetan eta baita sahararrak errefuxiatuta bizi diren kanpalekuetan ere, Aljerian. Kazetaritzak konpromisoa eskatzen du eta konpromiso horrek bulztatu nau liburua idaztera”, diosku.

Kazetaritza kronika bat da liburua, eta kolonialismoaren garaitik gaur egun arteko bidaia bat ere bai. “Pozarren” jaso du saria, “berezik ahaztutako gatazka bati erreparatzen dion liburua izan delako saritua”, azpimarratu du. “Ahmed Bujarik esaten zuen bezala, sahararrak denboraren biktima izango direla uste dutenek ez dute basamortuaren izaera ezagutzen. Sahararra erresistentzian jarraitzen duen herria da eta sahararrei eskaini nahi diet saria”, esan du.

ENTZUNEZKOA: ‘EZ GATOZ PARISTIK’ PODCASTA

Kultura euskaraz egiten dutenek hartu dute hitza, baina ez artelanaz mintzatzeke, baizik eta artea egitearen lanaz, lanbideaz, eta lan baldintzez. Prekaritateaz.

Lanartea, Euskararen Langile Profesionalen Elkartearen proiektu bat da podcasta eta euskaraz sortzen edota interpretatzen duten artisten lan baldintzak hobetzeko eta euskal kultur sistema bera indartzeko ahaleginean ari dira. “Ahalegin horretan, beste ekinaldi bat da podcast-a, 'aizue, hemen gaude eta hau dugu esateko kulturaz orokorrean eta gure kulturaren betikotuta dagoen prekaritate markoak indibidualki zein kolektiboki gudan dituen ondorioez!' esateko modu bat” aitortu digu Amagoia Gurrutxaga, Lanarteako kideak.

“Indarrean dauden kultur ereduak kultur politiketan eta gizarte osoan islatzen dira, eta horiek eragin zuzena dute sortzaile eta interpreteen lan eta bizi baldintzetan. Gutxituta dagoen euskarazko kultura beren-beregi babesteko eta laguntzeko politikak egiteari uko egiteak –euskal kultur adierazpideak



‘Bizkarsoro’-ren egileak: ezkerretik hasita, Hibai Castro, Katti Pochelu eta Josu Martinez.



Prensa saria: Kristina Berasain Tristan.



‘Ez gatoz Paristik’ podcasta: Amagoia Gurrutxaga eta Harkaitz Cano.



Gordegia.eus: Juanpe Urrosolo, Arkaitz Artola eta Fernando Olalde.



Guggenheim Urdaibai Stop plataforma: Zuriñe Gandarias, Itsaso Zaldunbide eta Eider Gotxi.



Argia Sarien aurkezleak: Oihana eta Haizea Arana.

ekoizteko eta gizarteratzeko formulak eta sareak estrategikotzat ez jotzeak-, esaterako, eragin zuzena dauka euskal artistaren egunerokoan; kultura ikuskizun, ebento, entretenimendu edo turistak erakartzeko amu-multzo gisa aurkezteak ere bai; eta euskal kultur sistemarentzako ezinbesteko hauspoa den herri ekimena itotzen saiatzeak; eta EAEko kulturarako sosen erdiak EITBri emateak eta trukean EITBri euskal kulturari ikusgarritasun eta entzungarritasun berezia eta berezitua emateko ez agintzeak...”, azpimarratu du.

INTERNET: GORDEGIA.EUS

Errelatoaz eta memoria historikoaz badakigu zerbait euskaldunok, herri honetan ere gertakizunen eta jendar-tearen alde bakarra gailentzea ohikoa (izan) baita. Donostiako Egia auzoko lagunen lana saritu da aurten, Gordegia.eus artxibategi grafikoa egiteagatik, hain justu aberatsen historia kontatu ordez langileen historia bildu baitute eta herritarrak memoria historikoaren protagonista bihurtu.

“Soilik elkarteko kideok etxean genituen argazki eta dokumentuekin artxibo majo bat osatu genuen lehen kolpean”, hasi ditu azalpenak Arkaitz Artola Gordegiako kideak. “Eta auzoko hainbat elkarte eta eragileren irudiak eskuratzen ere ibili gara eta, besteak beste, Kutxateka, Tabakalera eta San Telmo museoei esker gorpuztu ahal izan dugu artxibategia. Webgunearen bidez ere ekarpenak jasotzen ditugu, euskarri digitalak zein fisikoak dituzten argazki edo VHSak bezalakoak”, azpimarratu du.

2019an erabaki zuten lan hau egitea, ekonomia sozialaren inguruan aritzen den Teila Fabrikako kideek lehen amua bota ondoren. Eta horiek izan dira, ibilbide osoan zehar ere, Gordegia elkarteari babes ekonomikoa eta laguntza eman diotenak.

“Dokumentu bakoitzaren inguruan ahalik eta informazio gehien lortzen saiatzen gara, egiletzak aitortzen, eta abar”, osatu du Artolak eta berak esan ez badigu ere, jakin dena lizentzia libreekin argitaratzen dutela.

“Herrietako historia modu herrikoian jasotzea eta eskura jartzea lan eder eta oso aberasgarria iruditzen zaigu eta polita litzateke gure lanaren zabalpenak balio izatea beste auzo eta herri batzuetan antzeko proiektuak pizteko”, adierazi du.



KANPAINA: GUGGENHEIM URDAIBAI STOP PLATAFORMA

Negozioa eta turismoa ala herritarren beharrak eta naturaren zaintza? Galdera zahar hori inoiz baino indartsuago dugu gure artean. Premia pribatuak, diru publikoz ordainduta, Basque Country-a enegarren aldiz nazioartera saldu nahi dute. Handira, nola ez. Guggenheim Urdaibaiz ari gara gaurkoan eta, zorionez, badira oraindik herritar antolatutak, mota horretako egitasmoek mugikortasunean, etxebizitzaren prezioan, euskararen, ondare historikoan, bizi kalitatean, gu ez besteko animaliangan, ingurumenean, kulturean... ageriko eragina izango dutela ohartarazi eta beren bizitzak hipotekatuz borrokan ari direnak.

“Lan asko dago plataforma honen atzean, hasteko, aurrean dugun makinaria itzela delako eta eragozpen handiak jarri dizkigulako bidean. Erabateko mespretxua jaso dugu administrazioengandik: herri honen garapena oztopatzen ari garela, gezurretan gabiltzala, proiektu honen inguruko informazio guztia eman zaigula, baina ez dugula ulertu... tontotzat hartu gaituzte”, azal-



du du Eider Gotxi plataformako kideak. “Baina proiektu honek esan nahi duen inposizioa onartzen ez dugunak asko garela ikusteak ematen duen indarra ere handia da, herritarrengandik jasotako babesa ere bai, horregatik jarraitzen dugu aurrera”, segitu du.

2008 inguruan hasi ziren proiektu honen inguruko lehen zurrumurruek eta pixkanaka joan da forma hartzen, hedabideetan zabaltzena eta abar.

“Ordu asko dira, familiari eta lagunei eskaini beharrean hona bideratu ditugunak; baina konbentzimenduz ari gara, proiektu hau geratu beharra da-goela sinetsita”, esan digu Gotxik.

Kanpaina onenaren saria jaso dute, eta “justu kanpainarekin jarraitzeko bide ematen digu sari honek eta, nola ez, gure ondoan eta gurekin borrokan ari direnei eskerrak emateko”, azpimarratu du. ●

Tradizio berriei so

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Folklore kristalizatu den gauza hori zela zioen Ion Celestinok ARGIAN. Eta tradizioa, aldiz, une jakin batek ematen duen lorea dela azaltzen zuen.

ARGIA Sariak “tradizio” bilakatu direla esango genuke gaur egun. Hasteko, eta gehiegi pentsatu gabe, 35. urtez banatu direlako. Tradizionala bihurtu den tradizioa beraz, batzuen irudiko, eta atzerakoa ere bai, elkar estuki lotu ohi diren kontzeptuak direlako. Baina lore txiki bana ernaltzen da urtero. Lurra zaharra da, baina segitzen du ematen, zaintzen badugu.

Historia zaharra da, baina ARGIAren historiaren parte hurbil eta inportantea betetzen duten harpidedun zaharrak mahai batean bueltan jartzea, elkar aurrez ezagutzen ez zirenak, lore bat ernaltzea bezalakoa da. Haiek dira komunitatea zaindu dutenak eta motiboak eman dituztenak aurrera segitzeko. Haien hitzetik jakin dugu gaur gauzak ez direla hainbeste aldatu.

Duela urte asko hasita, Euskal Herri Mendebaldeko biosfera bat erreserbatu nahi dute batzuek, baina ez dute lortu, eta ez dute etsiko; ezta herritarrek ere. Mendebaldeak izango du zeozar; begira Saharan ere zer gertatzen ari den, eta nola jarraitzen duten. Euskara hilobiratu ere egin nahi izan zuten –batzuk baino, askok–, eta hori ere ez zuten lortu. Da-



Usurbilgo Atxega Jauregian banatu ziren Argia Sariak urtarrilaren 26an.

torren mendean ere ziur egingo ditugula egungo zapalkuntza istorioen kontakizunak. Eta Egiak izango ditu ordurako beste milaka memoria-dokumentu zahar. Baina espero dezagun, ordurako, kultur-gintzan dabilzan euskaldunak lasaiago biziko direla paper artean. Aferak ez dira aldatzen; aurpegiak aldatzen dira.

Aurpegi berriak ere baditu ARGIAK. Lantaldea handitu eta gaztetu da azken

urtebetean, ikusmolde eta proiektuak irabazi ditu, sinergiak egin, eta sinadura berriak gehitu; baina baita galdu ere. Pello Zubiria ondo merezitako erretiroa hartzeaz da, eta ARGIAN, uraren zikloa bezala –leitu bere printzipioz azken *Larrun-a*–, sortuko dira gauza berriak. Lurra zaintzen badugu bederen, ernalduko da euskarazko kazetaritza ere. Momentuz, ari da urratsak ematen. ●

 ARGIA *Sariak* 2024

BABESLEAK



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro





Ana Barandiaran, Maria Pilar Aizpurua eta Jone Arzallus.



Maitane Gartziandia, Onintza Irureta, Nagore Irazustabarrena, Axier Lopez eta Jenofa Berhokoirigoin



Olatz Korta, Juanma Zaldua eta Jon Andueza.



Bego Zuza, Iban Arregi eta Idurre Eskisabel.



Ainhoa Jauregi eta Iñaki Uribe.



Ezkerreko mahaian: Xabi Abasolo, Iñaki Soto, Iban Arantzabal eta Iñaki Lasa.
Eskuineko mahaian: Ane Elordi, Irati Elizalde, Asier Basurto, Pello Basurto eta Onintza Irureta.



Ezkerretik eskuinera: Maria Pilar Aizpurua, Ana Barandiaran, Jone Arzallus, Lander Arbelaitz, Gregorio Jauregi, Mila Etxeberria, Arantxa Galparsoro, Andoni Sarriegi eta Alberto Agirreazaldegi.



Eider Gotxi.



Josu Martinez, Hibai Castro, Leire Artola eta Kristina Berasain.



Mikel Olabide, Ekhi Zubiria, Nagore Irazustabarrena, Mari Karmen Loiarte eta Arantzasu Ruiz.



Amagoia Gurrutxaga.

ARGIAKO LANTALDEAREN MEZUA

ERRESISTITU
ETA EREIN

URKO APAOLAZA AVILA DAN I BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Joseba Zubimendi euskaltzale eta kazetariak Gernikako bonbardaketaren testigantza eman zuen 1939ko kronika gogoangarri batean, eta honela zioen: “Berdin zaie haur edo gizon, emakume edo abere. Bizia duan oro berdin: ez du deusik geldi behar zutik”. Eta artikulu berean aitortu zuen “Gernika erraustearen ikuspegiak baino, biharamonean entzundako gezur nardagarrien zulatze mina zorrotzago” sartu zitzaiola. Koldo Izagirrerren hautaketekin ARGIAN kaleratu dugun Zaldi bat ihes garrezko zelaian bildumaliburuan aurkituko duzue Zubimendiren pieza hau.

85 urte geroago, ez du ematen gauzak asko aldatu direnik. Duela urtebete, toki honetatik Mikel Garcia lankideak zioen garai interesgarriak zirela kazetaritarako. Pandemia, Ukrainako gerra, energia krisia... genituen gogoan. Nork esango zigun, urtebete geroago, genozidio bat ezagutuko genuela zuzenean?

Israelek 25.000 palestinar baino gehiago hil ditu Gazan, lurrez eta airez bonbardatu ditu... deusik zutik geldi gabe. ARGIAN hasieratik garbi izan dugu Palestinan gertatzen ari dena kontatu eta Israelen konplizeak zein diren salatu behar genuela. Etengabeko jarraipena

lazko toki berean jarraitzen du oraindik Pablo Gonzalezek, eta ARGIAren kolaboratzaile Jesús Rodríguez ‘La Directa’-ko kazetaria ere zigortu nahian dabil Espainiako Auzitegi Nazionala

ari gara egiten webgunean, eta aldizkari berezia ere kaleratu dugu. “Ez gure izenean”, genioen editorialean, eta gaur hemen berresten dugu: Ez gure izenean.

Josep Fontanak iragarri zuen bezala, mundua toki arrotz baterantz ari da mugitzen. Palestinan diote, existitza erresistitza dela. Kazetaritzarekin ere gauza bera esan dezakegu: nola egingo diegu aurre gorroto mezuei, xenofobiari, ideia totalitarioei, gezur nardagarriei...



informatzeko askatasunik ez badaukagu? Faxismoa hortzak zorrotzen ari da, eta bere mehatxuari erresistitu eta erantzutea dagokigu.

Ez dira garai errazak lanbide honentzat. Tamalez, iazko toki berean jarraitzen du oraindik Pablo Gonzalezek, eta ARGIAren kolaboratzaile eta laguna dugun Jesús Rodríguez La Directako kazetaria ere zigortu nahian dabil Espainiako Auzitegi Nazionala, Tsunami Democràtic auziaren barruan. Doakie elkartasun besarkada handi bat ARGIAko lantalde guztiaren partetik.

Baina kasu larrienenetan, kazetarien konpromisoa eta ausardia hil ala bizikoa bihurtu da: Palestinako kazetarien sindikatuak emandako datuen arabera, jadanik 112 dira Gazan Israelek hil dituen kazetariak. Bai, ehun-eta-ha-ma-bi, erraz esaten da.

Guatemalan ere ez daude askoz hobe, galdetu bestela Prensa Comunitariako kideei. Meatzaritzaren enpresek etengabe kriminalizatu eta jazartzen dituzte, Paulina Albanik ARGIAri kontatu zion bezala. Elkarrizketa horren harira Solway multinazionalaren gutun zertifikatu bat jaso genuen “opari”; artikulu berratu eta 15.000 euro ordaintzeko eskatzen zigun, auzitara jotzea nahi ez bagenuen.



Gure erantzuna irmoa izan zen: ez gaituzue isilduko.

Mehatxuei erresistitzetik harago, ARGIA alternatibak lantzen saiatzen gara egunerokoan. Horretarako, auzolanerako komunitate ezin hobea dugu, elkarte eta eragile anitzek osatua, eta aurten ere baditugu nobedade batzuk zuekin konpartitzeko. Doinuele sarea sortu dugu zortzi ekimenen artean: Baltsaneko lagunekin antolatzen dugun Ziburuko eta beste zazpi herritako euskal liburu eta disko azokek indarrak batu ditugu, euskara hutsezko plaza horiei oihartzuna emateko. Gainera, Biolurrek sustatzen duen Amillubi proiektuko partaide da ARGIA, badakigulako ze garrantzitsua den lurrak kolektiboki lantzea etorkizun itzaropentsu bat ereiteko. Liburuak ekoeditatzen ere hasi gara Kataluniako Ekoedizioaren Institutuaren laguntzarekin. Eta ezin aipatu gabe utzi parte garen Olatukoop ekonomia eraldatzailearen sarea, bere hamargarren urteurrena beteko baitu aurten. Zorionak denoi beraz!

Produktuei dagokienez, uzta oparoa izan dugu: Zaldi bat ihes garrezko zelaian, Ño, Hausnarrean eta Planeta Prekarioan liburuak argitaratu ditugu; Jarioka, Hizki Pizti eta Otu jolasak kale-ratu, eta sei podcast berri ere jarri di-

Zortzigarren urtez jarraian aurreko urtean baino gehiago gara, eta jadanik proiektu honen aurrekontuaren %40 ARGIAko kideek egindako ekarpen ekonomikotik dator

tugu martxan: Egonarria, Señorak, BTN, Menda Bikoitza, Larrun eta Oroimen Histerikoa.

Proiektu eta produktu horien atzean pertsona askoren izenak daude, gehiegi denak hemen aipatzeko, baina denekin gaude erabat eskertuta.

Hori guztia ez litzateke posible izango ARGIAko komunitatearen eta kideen babesik gabe. Zortzigarren urtez jarraian aurreko urtean baino gehiago gara, eta jadanik proiektu honen aurrekontuaren %40 ARGIAko kideek egindako ekar-

pen ekonomikotik dator. Asko kide berri gazteak dira, eta beste asko aspalditik ditugu alboan, aldizkari honekiko kariñoa eta estimua transmititzen. Berriz ere Argia Sarietan mahai baten bueltan elkartu ditugu mende erdia gurekin dararamaten hainbat kide: Bejondeizuela!... Andoni Sarriegi, Maria Pilar Aizpurua, Pake Gartzia eta Gregorio Jauregi.

Herritarren konpromisoaz gain, bis-tan da euskarazko hedabideek instituzioen konpromisoa ere behar dutela. Kalitatea eta profesionaltasuna oinarri hartuta, informaziorako zerbitzu publiko bat eskaintzen dugula sinesten dugu. Erakunde horiek bermatu behar dute euskarazko hedabideetako irakurleek ere zerbitzu duina jasotzea, eta bide horretan guk atek irekita ditugu beti elkarlanerako.

Kazetaritzaz ari gara, eta amaitu nahi dugu aipamen berezi bat egiten. Urte luzetan ARGIA aritutako Pello Zubiria gure lankideak erretirorako bidea hartu du. Duela gutxi zioen kazetarien behar handia dagoela garai hauetan, kazetariak arriskuak hartu behar dituztela, munduan gertatzen ari dena ulertzeko gakoak emateko. Eskerrik asko Pello orain arte egindako guztiagatik. Gu ere horretan saiatuko gara aurreratzean. ●

“ ”

Estatu Islamikoko emakumeekin zubiak eraiki genituen elkarrizketarako, baina zintzoak izan behar ginen eta gezurretan ez erori

Lara Vilanova

Lara Vilanova (1983, Bartzelona) argazkigintza zuzendaria da eta *The Return: Life after ISIS, Sinjar, Cuerdas* edota *Hondarrak* filmetan hartu du parte. Abenduan Euskal Herria bisitatu zuen *The Purple Meridians* topaketetan parte hartzeko Durangon.

  AITOR ASPURU SAEZ

Purple Meridians jardunaldietan hartu duzu parte, zein ikuspuntutatik?

Garrantzitsua da horrelako kultura topaketetan parte hartzea, hitz egiteko, salatzeko... Durangoko Azokaren tesuinguruan egiteak erakusten du tresna indartsua dela kultura eta nik lotura daukat ekimen honekin hasieratik. Hau hirugarren edizioa da eta lehenengoa Alternativa Jaialdian izan zen. Hitzordu garrantzitsua da egile zinemaren zein zinema esperimentalaren esparruan.

Oloten izan zen bigarren edizioa. Ezin izan nuen parte hartu horretan, baina harremanak egin nituen. Izan ere, meridianano honek –Purple Meridiansek– Katalunia, Italia eta Kurdistan lotzen zituen hasieran. Gero eta lurralde eta emakume gehiago batzen ari dira eta meridianano zabaltzen ari da.

Berez, topaketak ez dira soilik eztabaidatzeko. Asmoa da elkarlana susta-

tzea, sinergiak eragitea eta gure ikusentzunezkoak erakustea munduan. Gure jarrera geopolitikoa aktiboa eta internazionalista da, kultura eta politika eskutik oratuta baitaude.

Horrela, nire partaidetzak badu zerikusirik nire lanekin, Kurdistanen edo Iraken. Alegia, nire lehen proiektua Alba Sotorrarekin izan zen eta badakit ARGIAN elkarrizketatu zenutela. Albari esker sartu nintzen Rojavan eta niretzat han egiten ari diren iraultza da munduko inportanteena, saiatzen baitira demokrazia erreala, ekologista eta feminista eraikitzen.

Nolakoa izan zen *The return: Life after ISIS* egitea? Roj Camp eremuan egon zineten. Han dituzte kurdu siriarrak atxilotuta, ustez, horren erradikalizatuta ez dauden Estatu Islamikoko hainbat emakume atzerritar.

Gu Rojavara heldu ginen Kalifatoa desagertzeaz zegoelarik, 2018an. Zorigaitza baino ez zen izan bere existentzia. Sirian inork ez zuen ezer egin Estatu Islami-koan han ez finkatzeko eta guretzat dokumentalak balio behar zuen galdera bati erantzuteko: Nola da posible munduko hainbat txokotako emakumeak –Espainiako Estatukoak, Alemaniakoak...– bidaiatzea Siriara emakumearekin eta gizadiarekin oro har hain krudela den Estatu Islamikoan parte hartzeko? Horrek galdera gehiagora eraman gintuen. Kurduak kontrolatzen dituzten kanpalekuetan daude orain emakume horiek eta kurduak ahalegina egiten dute haien mantentzeko, nahiz eta jende horrek euren senideak hil dituen. Ez dakigu zein neurrian parte hartu zuten Kalifatoan eta, gainera, gezurra hor dago beti.

Hori guztia aintzat hartuta, erabaki genuen jatorrizko herrialdeen ardura azpimarratzea. Nolatan ez dituzte he-



rriratu? Zergatik ez dute euren ardura hartu eta epaitu? Zergatik kendu diete herritartasuna? Kurduen zama bilakatu dituzte.

Gezurra aipatu duzu, baina zenbait korapilo etiko ere. Nolakoa izan zen zuen harremana Estatu Islamikoko emakume horiekin? Berez, euren burua biktima gisa aurkezten dute Koalizioak bonbardatu dituelako, baina Kalifatoaren izaera erabat ahazten dute.

Gatazka eremu batera joaten zarenean, agian uste duzu prest zaudela, baina ez da horrela eta kontraesanak berehala agertzen dira. Esaterako, nola aurkezten duzu zure burua fisikoki? Nola jantzi, nola hitz egin?

Rojavako zinemaren komunarekin parte hartu genuen oso modu estuan, baina bestelako erakundeekin ere. Sevinaz Evdikek ere lagundu zuen, Rojavakoa da, eta gidoilaria. Berak eta Albak artean genituen zalantza guztiak argitu zizkiguten.

Nola da posible munduko hainbat txokotako emakumeak bidaiatzea Siriara emakumearekin eta gizadiarekin oro har hain krudela den Estatu Islamikoan parte hartzeko?

Hilabete bakarra egon behar ginen, baina bi izan ziren azkenean beharrezkoak, guk nahi genituen hariak azalera-tzeko. Bestalde, gatazka eremu batean zaudenean dena ez da posible zuk nahi duzunean, zailtasunak sortzen dira, baina Sevinazek ireki zizkigun bere etxe eta familiako ateak, eta Rojavako zinemaren inguruan mugitzen den jendearen babesa izan genuen.

Ez genuen soilik dokumentalean parte hartu. Gure soinu teknikaria, adibidez, han geratu zen. Berak lagundu zidan egoera ulertzen. Izan ere, han ginelarik Kalifatoaren azken lurraldea ari ziren bonbardatzen. Horrek eztabaidak sortu zituen gure artean. Dokumentala ez zen izan zerbait isolatua, esperientzia osoaren zati bat baizik.

Egia da tokiko zinemagileek euren istorioak kontatzea dela interesgarriena, baina kanpotik joateak laguntzen du egoera zabaltzen eta ezin dugu ahaztu Rojavako egoera, Gazako sarraskia bezala, nazioarteko egoeraren emaitza dela eta guztion ardura dela gelditzea.

Rojavara heltzean, ate guztiak ireki zizkizueten, baina berotasun horrek ez du zerikusirik Estatu Islamikoko emakumeen harrerarekin. Al Hol atxiloketa eta errefuxiatu kanpalekuan, adibidez, Elko emakumeek bortizkeria ugari sortu dute eta hainbat pertsona hil. Nolakoa izan zen aldaketa hori?

Prozesua nekeza da emozionalki. Ez diozu zure buruari galdetzen horrenbeste non jarri kamera, baizik eta zein izango den ikuspuntua. Ezinezkoa da neutrala izatea. Ez litzateke egia izango. Hala ere, zubiak eraiki ditzakezu elkarrizketarako, ez bigarren edo hirugarren aukerak eskaintzeko. Hori ez zen gure ideia. Garrantzitsuenaren izan zen ikustea euren gezurren artean, ze eurek pentsamendu eta gezur horiek automatizatuta dituzte. Eurek ere barne kontraesanak dituzte, baina guk ezin dugu gezurra onartu, ez litzatekeelako izango zintzoa gure helburuekin.

Dena den, topatu genuen ikuspuntua eurekin hitz egiteko. Hau da, nola liteke jatorrizko herrialdeek ez hartzea euren ardura eta epaitu? Zintzoak ginen hitz egiteko eta lan egiteko, beti kurduak eman ziguten maitasunarekin, euren iraultzak emandako indar komunitarioa hartu genuen tinko aritzeko mezuan eta ez nahasteko gezurretan.

Guztiok daukagu eskubidea gure jatorrizko herrialdean epaituak izateko. Iparra ez gaitzeko, diskurtso horretan zentratu ginen.

The return: Life after ISIS ostean, justu antipodetan zegoen beste film batera joan zinen: *Sinjar*. Lan horrek mahai gainean jartzen du Estatu Islamikoko emakumeen gezurrek ezkututzen duten errealitateetako bat: iazidien aurkako genozidioa.

Bai. *Sinjar* fikziozko lana da. Ana Bufarui bospasei film ditu eta beti baztertu dute bere diskurtso geopolitikoa oso argia delako. Berak idazten ditu bere gidoiak eta zentratzen da emakume ekintzaileen ahotsetan. Ez du zurrizten, berarentzat politika eta kultura oso lotuta daude. Beti harrotzen ditu hautsak eta zuzen egon daiteke ala ez, baina ez dio beldurrik eztabaida sortzeari. Hilabetea eman genuen Iraken grabatzen eta COVIDak bete-betean harrapatu gintuen. Etxe batean itxi ginen, enbaxadak etxe batera bidali gintuen eta handik herriratu gintuzten hegazkin militar batean, tamalez, dena militarizatuta baitzegoen.

Sinjar filmean Rojavako Zinema Komunak ez zuen zerikusirik izan. Hori Mosuletik gertu izan zen, eta batez ere tokikoekin egin genuen lan, zentzu guztietan: artistikoa, narratiboa, gidioa, jakitea nola ikusten zuten eurek istorioa...

Fikziozko filma da errealitatean oinarrituta badago ere. Dena den, protagonistetako bat benetan bahitu zuen Estatu Islamikoak eta bere bizipena azaldu



Ezin dugu ahaztu Rojavako egoera, Gazako sarraskia bezala, nazioarteko egoeraren emaitza dela eta guztion ardura dela gelditzea

dugu filmean. Hala ere, horrek lagundu zuen ahalik eta modu exigenteenean eta fidelenean jokatzeko, delikatuak baitzen. Bere parte hartzeak oso zorionsu egin gintuen, arteak batzuetan laguntzen baitu minak azaleratzen. Elkar laguntzeko prozesua izan zen eta guztion artean – denok ginen emakumezkoak – komunitatea sortzeko.

Zaintza aipatu berri duzu, zeharka bada ere, Purple Meridians topaketak bi ardatz ditu, gatazka eremuak eta zaintza. Euskal Herriko proiektu batean parte hartu duzu, zeina oso lotuta dagoen horrekin, *Cuerdas*.

Bai, Euskal Herrian Esti Urresolaren *Cuerdas* zein *Hondarrak*-ekin. Hain zuzen, azken horrek zaintza lanak jorratzen ditu. Sari ugari eskuratu ditu eta egiten duen galdera da nork zainduko duen emakume zaintzaileak desageritzen direnean. Noren esku egongo dira zaintzak?


Cuerdas-i dagokionez, oso polita iruditu zitzaidan ikustea zaintzak agertzen zirela sorkuntza prozesuan bertan. Ez zen soilik horri buruz aritzea. Emakume

nagusiak eta indartsuak erakusten dira pelikulan. Ahaldunduak agertzen dira eta uste dut hori inspirazioa dela. Berez, emakume nagusiak filmetan agertzen direnean izan ohi da euren arazoei lotuta; minak, gaixotasunak, ahultasunak, laguntzaren beharra... Baina *Cuerdas*-en ez da horrela. Estik oso ondo egin zuen, behartu zuen ikuslea horri aurre egitera, eta zaintza grabaketan bertan sortu zen eta mantendu da. Antzezle nagusiaren urtebetetzean talde guztiak deitzen dio zoriontzeko, adibidez. Bada zerbait iraun duena filmaren ondoren eta bizitzan geratu da.

Gatazka eremuetara itzulita, uste dut zure buruan baduzula eztabaida bat piztuta horri buruz, ezta?

Bai, Gazako sarraskia eta Ukrainako gerra bizitzen ari gara ia-ia zuzenean, eta ez dakit irudi horiek guztiak beharrezkoak diren kontzientzia sortzeko. Askok ez dituzte behar kontzientzia izateko, baina, aldi berean, egia da zenbakiak eta kopuruek ez dutela dena islatzen eta horretarako daude irudiak. Hala ere, uste dut batzuetan irudi gordin horiek kontzientzia sortzera baina, sentikortasuna galtzera eramaten dutela jendea. Ez daukat argi, baina beti adierazi behar dugu desadostasuna gure gobernuak hartzen duten jarreragatik genozidioen aurrean. Salatu behar dira Espainiako Gobernuak Israeli emandako sariak eta argi jokatutako behar dugu: ezin da iritzi publikoan nahasmena sortu genozidio bat gertatzen ari denean.

Zentzu horretan, adibidez, uste dut Ada Colau eredu dela, egoera salatzen ari baita bere esku dauden bitartekoekin. ●



Tefia, homosexualak zigortzeko eremua



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Fuerteventura (Kanariar Uharteak), 1954ko otsailaren 11. Tefiako Nekazaritza Kolonia abian jarri zuten uharteko aireportu abandonatuan, basamortuaren erdian. Nekazaritza kolonia eufemismoaren atzean, praktikan, kontzentrazio eremua izan zen Tefia, nagusiki LGBTI komunitateko kideak errepresaliatzeagatik ezaguna egin zena. Baina duela 60 urte gunea ireki zutenean, han ez zegoen preso homosexualik, edo ez behintzat arrazoi horregatik kondenatutakorik.

Tefiako gunea Alfer eta Gaizkileen Legea hausteagatik kondenatutakoak "zuzentzeko" erabili zuten hasieratik. Legea 1933koa zen, II. Errepublika garaikoa, eta ez zuen homosexualitatea delitutzat jotzen. Baina Tefiako eremuak atek ireki eta hilabete gutxira, 1954ko uztailan, gobernu frankistak legea aldatzea erabaki zuen, delitugileen zerrendari "homosexualak" erantsita.

Dokumentazio eta datu zehatz gutxi daude Tefiaren inguruan. Hamabi urtez egon zen martxan eta 1966an itxi zuten preso faltagatik. Guztira 250-300 preso inguru egon omen ziren bertan eta, horietatik, 80-100 inguru homosexualitatea leporatuta eramane zituzten; 18-23 urte bitarteko gazteak ziren, denak gizonetzkoak.

Gasteizko karmeldar ohi bat izan omen zen lehen urteetako zuzendaria, Prudencio de la Fuente edo Prudencio de la Casa izenekoa -litekeena da izen



bereko bi kargu egotea-.

Baina Tefian espetxeratutako presoek lekukotzari esker dakigu gehienbat han gertatutakoaren berri. Nagusiki, Juan Curbelok eta Octavio Garciak hitz egin zuten han bizitakoari buruz, biak homosexualitateagatik kondenatuak. Nekazaritza Kolonia horretan ezer gutxi ikasi zuten nekazaritzaz; ordu luzez harria pikatzera behartzen zituzten, jipoiak eman zizkieten noiznahi, elikadura oso eskasa zen eta, muturreko gosea arintzeko, janariaren truke, funtzionarioekin prostituitzera iritsi ziren.

Urtebete eta hiru urte bitarteko zigorrak bete behar izan zituzten, baina

zigorra ez zen hor amaitzen: espetxetik irtenda, beste urtebetez debekatuta zeukaten herrira itzultzea eta, ondoren, bost urtez, hilabetero joan behar zuten komisaldegira kontrol agiriak sinatzera.

Eta Tefiako kontzentrazio eremua 1966an itxi zuten arren, homosexualitatea ez zuten berehala despenalizatuko. Alfer eta Gaizkileen Legea bertan behera geratu zen 1970ean, baina haren ordeez Arrisku eta Gizarte Errehabilitazio Legea ezarri zuten, homosexualitatea zigortzen jarraitzen zuena. Azkenean, Franco hil eta 4 urtera, 1979an homosexualitateak delitu izateari utzi zion Espainiako Estatuan. ●



PNAS

Wasabia papiroak garbitzeko

Kairoko Egiptoar Museoko Kontserbazio Zentroko ikerlariak egiaztatu berri dute *Eutrema japonicum* edo *Cochlearia wasabi* izeneko errefaua egokia eta eraginkorra dela papiroak garbitu eta kontserbatzeko. Hau da, nagusiki japoniar sukaldaritzan erabiltzen den wasabia baliatu dute, propietate fungizidak dituelako.

Gainera, lagin batzuen zahartze prozesua azeleratu dute, wasabiak 100 urtetan papiroetan zer ondorio izango lituzkeen jakiteko, orain arte papiroetatik ondokoak kentzeko erabilitako substantzia kimikoek papiroen kontserbazioan ez zutelako laguntzen. Eta ondorioztatu dute wasabiak, ez euskarriari eta ez pigmentuei, ez diela kalterik eragiten. ●

ARTILEZKO LASTAIRAN



Pikunieta baserrian, urtarrilaren 19an, ardia jaio berri den arkumea miazkatzen.



JOSEBE BLANCO

Esango nuke artzaintzatik lan gehientsuenak gustuko ditudala. Artalde baten zikloan dauden sasoietan, ordea, erditze-garaia da kuttuna. Lerrook idazten ari naizen honetan, 25 arkume jaio dira etxean. Lagin txiki bat, besterik ez, 160 bat arkume jaioko direla pentsatzen baduzu.

Egarriz espero nuen erditze-sasoia. Barrua ere kiskaltzen dizun bero sargori horretatik ihesi itsasoratzen zaren grina bertsuarekin desio nuen. Eta heldu da; heldu da freskura, arnasa itzultzen dizun hori.

Artile itsaso honetatik kanpo geratzen dira azken hilabeteotan, artez edo moldez, bizi gaituzten beldurra eta solastalgia elikatu dituztenak. Etxe gaineko belarditik ikusten diren Oleta eta Izazpi atzean utzi ditut; eta artetik ateak ixtean, itxi egiten dizkiet parean ditudan Meaka eta Irimo mendiak ere industrialde bilakatu nahi dituztenei. Eta hori zuritzen dutenei. Eta horretan laguntzen dutenei.

Behin artegian, libre naiz, maite ditu-

dan mendiei bizkarra emanda, artileak laztasunean goxatzen dit bihotza; eta lanolinaren usaina ere librea da biriketant murgiltzeko. Gorputza erraz mugitzen da artiletan, eta karenen gorriak bizitzaren esentziaz hitz egiten dit, xuxurla izan nahi duen garrasi batez.

Karenaren ondotik oritza etorri da. Orduan, ardiak, marru bilduez, arkumeari adierazi dio sabeletik kanpo ere badela bizitzea. Amari kasu eginez, arkumeak bilaketari ekiten dio. Senak sabelaren azpialdera bideratzen du ttikia, eta halako batean, ttak, lortu du iturria irekitzea! Lortu du bizitzaren giltza, lortu ere; eta, pozaren pozez, buztana alderik alde astintzen du jaioberriak.

Ttikiak oraindik ez daki, baina egun gutxiren buruan lasterka eta saltoka ibiliko da artegian –aste batzuk pasako dira belardian korrika egiteko–. Horretarako, amaren ondoan hasiko da lehen saiakerak egiten, jauzi labur eta beldurtien ostean, jakin-minak eramango du etzanda dagoen amaren gaineko talaia-tik munduari begiratzen.

Nolatan ez dut nahi izango itsaso latz bare honetan igerian egin, luzaroan? Artetik kanpo dagoen giro ospeletik gordetzen nau artetik zaku-amniotikoak. Hemen injustiziarik ez dago. Agintekiarik ere ez. Babesgabetasunik ere ez. Ezta amarrukeria berderik ere.

Gauak ere, artetik bezala, badu gaitasuna horiek guztiak desagerrarazteko. Artetik ateak parez pare izateak ez du minik egiten, solastalgia itzalak ez du bihotza iluntzen.

Gaua magikoa da. Eta artegia are magikoagoa gauz. Erabateko harmonia arnasten da. Ardiak eta arkumeak elkarren ondoan etzanda ikustea baino lasaigarriagorik ez zait bururatzen. Kolkoan sortu zaizun artilezko lastaira goxoan etzaten zara; eta begiak itxita betetasunak gainezka egiten du, masailetatik behera, kanpoan utzi duzun elkartasunaren haziak topatzean.

Sustraiak sentitu dituzu, sendo.

Hauek egin zaituzte artzain.

Haiek egin zaituzte menditar. ●

A ZE FAUNA!

KALTE BAINO ONURA GEHIAGO



EGOITZ ALKORTA
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA



Euskal Herrian bi sator espezie ditugu, sator itsu iberiarra (*Talpa occidentalis*), hedapena Bizkaia eta Araba mendebaldera mugaturik duena, eta Akitaniako satorra (*Talpa aquitania*), zabalduena eta ugariena.

Deskribatu berri den espeziea da Akitaniako satorra. Ezaugarri morfologiko eta desberdintasun genetikoak medio, gertuko ahaide duen sator arrunt edo europarrarengandik (*Talpa europaea*) bereizi eta izendatu zuten 2017. urtean. Frantzia hego-mendebaldean, Euskal Herrian eta Espainia iparraldean bizi da. Akitaniako eskualdean oso ugaria omen, izena jartzen ez ziren asko nekatu!

Sobra ere, denok ezagutzen dugu satorra, ilaje beltz-beltzarekin. Bizimodu hipogeo du ("hipo"-k azpian esan nahi du eta "geo"-k lurra, antzinako grezieran) eta baldintza horietara ezin hobeto moldaturiko ezaugarriak ditu: gorputza zilindrikoa eta trinkoa, muturra zorrotza, buztana laburra. Aurreko hankak oso indartsuak eta zabalak ditu, azazkal luzeekin. Palak bailiran erabiltzen ditu, lurra mugitu eta mugitu, zulatu eta zulatu, lanean aritzeko. Begi oso txikiak ditu, argi-ilunak soilik ezberdintzen dituztenak. Betazalak josiak ditu eta hori da sator europarrarengandik bereizten duen ezaugarri nagusietako bat.

Lur bigun eta gozoak maite ditu eta bertan egiten ditu lurpeko galeriak, 5 eta 30 cm bitarteko sakoneran. Batez ere zelaian topatzen ditu horrelako

lurzoruak, baina baita lur-geruza lodidun basoetan ere. Eredu putzutuak, harritsuegiak edo hondartsuegiak ez ditu gustuko, ezin baititu tunelak gustura egin. Lur azidoak ere ez, ez baitu hainbeste zizare aurkituko.

Haragijale petoa izaki, landaririk ez du jango satorrak. Bai ordea moztu, lanean ari dela parean tokatuz gero. Zizarejale amorratua da eta horiekin batera hainbat intsekturen larbek osatzen dute bere dieta. Harrapakin handienak, zizareak kasu, pilatu egin ditzake biltegi moduko batean. Egutero bere pisuaren erdia jan beharra dauka jakitan! Ez du apetitu makala!

Koitaduak egurra jaso du. Asko dira sator-zuloei begira, aitzurra eskuetan (baita eskopeta ere), sator-ehizan orduak pasa dituztenak. Geldi-geldi zain, begira-begira, lur-pilan mugimendua ikusi eta... zast! Akabo satorra. Bestelako tranpa, pozoï eta trikimailuak, nahi adina erabili dituzte. Hori guztia gaur egun debekatuta dago, noski. Badira beste modu batzuk satorra hil gabe kanporatzen saiatzeko. Jakoba Errekondok hainbat aipatu zizkigun, tartean sator-belarra (*Euphorbia lathyris*). Pozoitsua da, bere izerdi esnetsuak erre egiten du eta satorrari ez zaio batere gustatzen landare honen sustraiei kosk egiten aritzea. Baratze inguruan landatuz gero, funtzionatzen omen du.

Jende askok ez daki satorrak lurra emankortzen laguntzen duela. Sakoneko

AKITANIAKO SATORRA

Talpa aquitania

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna

NEURRIA: 11,6 eta 20,3 cm artean.

NON BIZI DA? Belaze, baratze, lorategi, mendiko larre eta basoetan.

ZER JATEN DU? Zizareak eta lurpeko zomorroak.

BABES MAILA: Ez dago babestua.

geruzetako lurra mugitzen du, lurzoru berrituz eta aireztatuz. Gure intereserako kaltegarriak izan daitezkeen zomorro asko ere jaten ditu. Horrek guztiak eragina du bertako landare komunitatean eta normalean landare espezie dibertsitateareagotzen du. Satorra inguruan bada, lur onaren seinale.

Hori guztia jakin gabe, harrapatu eta zenbat zigor bete ote ditu sator gaixoak? Handiena, Nafarroako Aniz herrian: baseritar batek harrapatu omen zuen, eta zigor handi bat eman behar ziola-eta, bizirik lurperatu omen zuen! ●

EMANARAZTEKO TRATU TXARRAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

Erlastarra.

Neguko inausketa sasoia gainean dugu, hemen dator epaitzeko, epaiak egiteko garaia: epaila. Aspaldi dugu epaila martxotua eta inausketa lanak noiznahi eta nolanhai egiten dira, tartean krimen izugarriak.

Bi inausketa mota nagusi daude: bata landareari forma jakin bat ematea (hesia, topiaria, arbolen gaztetako formazioa...); bestea fruta arborei ale gehiago eta azkarrago emanarazteko teknikak.

Landareek fruitua eta hazia ematen dituzte bere kastari jarraipena eman-go dioten arbola berriak jaino daitezzen. Landarea bera oso ondo bizi bada ez du fruitua emateko energia asko xahutuko, berak eusten dio, gordin, mardul eta malats asko kastari. Hori irauli nahi du inausketak: landareari zauri mordoxka bat egin, hazi nahi duen tokirako bidea eragotzi, lotu, okertu eta abar. Landareak bere burua galmentan sumatzen du eta badaezpada fruitua ematera jarriko da. Inausketa horixe da, fruitu gehiago eman dezan landarea izorratzea.

Inausitako arbola horrek fruitua emango badu lorea ekarri beharra dauka. Eta loreak irekitakoan polinizatzaileen premia du. Fruta arbola batzuek haizea nahikoa dute loretik lorerako polen truke hori egiteko: hurritzak eta intxaurrendak, adibidez. Beste askok polenaren garraiolariak behar dituzte; hegaztiak (kolibri, saguzar eta abar), baina, nagusiak intsektuak dira. Kakalardoek, euliek, tximelekek, sitsek, inurriek, liztor erle eta erlabioek eta abarrek frutagintzan behar-beharrezkoa den lana egiten dute. Intsektuen eta landareen arteko tratuan datza landare loredunek eboluzioan izan duten arrakasta. Jurasikoan, duela 130 milioi urte, landare loredunak sortu zirenean, intsektuekin elkarlan akordioa hitzeman zuten. Lorearen diseinua da gakoa: nektarra eta polena, janari pixka baten truke intsektuek polinizazioa gauzatuko dute. Egun munduko landareen %90 inguru dira. Landareok eta polinizatzaileek elkarrekin eboluzionatu dute, landareek loreak (forma, usaina, luzera...) eta in-

tsektuek gorputzeko atalak (ahoa, espiritronpa...) egokituz.

Elkarren beharra handia da batzuetan. Suitzako Zuricheko ETH unibertsitate publikoko ikerlari talde batek (Pashalidou, Lambert, Peybernes, Mescher eta De Moraes) erlastar berezi baten jokabidea aztertu zuen eta ondorio harrigarri batera iritsi ziren, eta baita *Science* aldizkari ezagunean argitaratu ere: erlastarrak udako kolonia eraikitzen duen artean polen premia handia du. Urtero ez dira ordea loraldian egun berdinetan izaten; gorabehera horrek gosea ekar dezake. Polen eskasia egonik, erleek aktiboki hozkaka kaltetu zituzten landareen hostoak modu berezi batean, eta horrek 30 egun lehenago lorratzea eragin zuen. Ikerlariak egindako antzeko kalteek ez zuten loraldia aurreratu. Erlastarrek loraldia azkartzeko erabiltzen duten metodo berezi bat dutela da ondorioa. Landarea izorratzea.

Frutazainek inausketarekin egiten dutena erlastarrek egiten dute, jakin ezazu duela zenbat milioi urtez geroztik. ●

BILOBILA

ANGORA AHUNTZEN
ILEAREKIN ARROPA ETIKOAGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ez naiz laborari familiakoa, baina agronomia ikasketak egin eta gero, lehen sektorean aritu naiz lanean Ipar Euskal Herrian. Han ikasi dut badela gauzak egiteko beste manera bat”. Areta Lorea Markalain gaztearen hitzak dira. Zenbait urtez kanpoan bizi ondoren, Nafarroara bueltatu zen iaz. Abaurregainakoa du aita, eta herrian abeltzaintza proiektu berezia jarri du martxan: Bilobila. Angora ahuntzak hazten ditu, eta ilearekin arropa egin eta saltzen du. “17 ahuntzekin hasi naiz, eta 80 bat burutara iristea da asmoa, etxalde txikia izanen da hau”, adierazi du.

Angora arrazak Turkian du jatorria, baina mundu osoan zabalduta dagoela azaldu du Loreak: “Batez ere Hegoafrikan eta AEBetan daude, etxalde izugarri handietan. Mohairra, Angora ahuntzaren ilea, enpresa handiek erosten dute prezio baxuetan, eredu hori da nagusi”. Manejurako arraza erraza dela azaldu du abeltzainak, txikiak eta izaeraz nahiko lasaiak direlako. Ilea da haien berezitasun nagusia: “Hemen ile leuneko eta motxeko ahuntzetara gaude ohituak, baina hauei asko luzatzen zaie, eta kixkurra eta txuria dute”.



Ziurtagiri ekologikorik ez du Loreak, baina bere moduan, eredu sostengarrian ekoiztea du oinarri. “Saiatzen naiz bertako bazka edo ekologikoa lortzen, ekoizpena ahalik eta zentzudunena izan dadin”. Izan ere, lur faltan, momentuz behintzat ez du aski belarrik ekoizten bereazienda guztiari jaten emateko: “Hiru hektarea ditut alokatuta, eta belarra, berriz, ondoko herriko abeltzain bati erosten diot”.

**MOHAIRRETIK ARROPARAKO
PROZESUA, KOLEKTIBOAN**

Artilea baino distiratsugoa da mohairra, eta hau ere isolatzaile oso ona da. “Hotzetik eta berotik, bietatik babesten

du, eta ez du usainik hartzen”. Urtean bitan mozten die ilea ahuntzei Loreak, eta eskuzko garbiketa eta sailkapena egin ondoren, Castresera, Frantziako hegoaldera bidaltzen du. “Hango lantegian eraldatzen dute mohairra, eta hari eta arropetan itzultzen digute. Ni bezalako beste ekoizle batzuekin elkarte bat dugu horretarako, kolektiboan egiten dugu eraldaketa”.

Lantegitik bueltan jasotzen dituen arropa batzuk –txanoak, fularrak...– zuzenean saltzen ditu ekoizleak, baina beste batzuk, enkargu bidez eskatutako produktuak, adibidez, eskuz egiten ditu. Laguntzaile bat du horretarako. Batik interneteko dendatik merkaturatzen ditu produktuak, modu zuzenean. “Orain bisita gidatuak antolatzen hasi naiz. Kontzientziatu nahi dut jendea, landa eremua eta animalien hazkuntza erakutsi nahi dizkiet. Garrantzitsua da ekoizpen bat zer den ikustea, zenbat kostatzen den”. Zentzu horretan, elikaduraren inguruan sentsibilizazio handiagoa dagoela sumatzen du. “Arropari ez zaio hainbeste begiratzen oraindik, baina, pixkanaka, bide horretan goazela uste dut”. ●



0-16 urte bitarteko irakaskuntza

AURKEZPENAK: otsailaren 8an

Euskaraz 16:00etan / Gaztelez 18:00etan

MATRIKULA EPEA ZABALIK: otsailaren 7tik 23ra

ATEAK ZABALIK: 17:00etan

943 889 617 beasaingoikastola.eus beasain@ikastola.eus



DONOSTIAREN KONTENEDORA

SORKUNTZARI TRABAK,
KULTUR HIRIAN

Donostiako Amara auzoan dagoen Kontenedora sorkuntza espazioak ez du estreinako urterik onena izan: bederatziz hilabetez itxita egon da, burokraziaren katramiletan harrapatuta. Udalak ezarritako trabak azaldu dituzte. Abokatu eta arkitekto artean aritu ostean, baina, badirudi berriz zabaltzetik gertu egon daitezkeela. Era guztietako artistei eta arte interesatuei ateak ireki asmo dizkiete, sormena modu kritikoan lantzeko eta espazio urratzailea izateko. Jende bati azkura eragiteko.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Antso Jakitunaren zortzigarrenean, Donostian. Beste era batera esanda, eta solaskideen hitzak baliatuta, “pasoko lekuan”, zentroaren eta futbol estadioaren artean, ospitalera igotzeko errepidearen ardatzean. Hor dago, edo une honetan “zegoen”, itxita dagoelako, Kontenedora artisten espazioa. Herri-lanek oztopatzen dute pasabidea.

Amara eta Anoeta arteko zonaldea deskribatzeko ez dute ezereza hitza erabili, komertzioak eta jende eta kotxe jarioa egon ohi den lekua delako, baina bai esan dute postaletatik kanpo aspaldi geratu zen ingurunea dela. “Eta hori, gainera, Anoeta hemen alboan daukagula eta jendetza mugitzen duela, bereziki Erreala denboraldi onak egiten ari den urte hauetan”, gehitu du solaskide batek. Beste batek, tonua bereizteko adinako irria eginda, ñabardura txiki bat egin nahi izan dio zonaldea postaletatik at geratu den ideiarri: “Ardatz hau postaletatik kanpo dagoela esaten dugunean, errespetu guztia diegu Txomin, Martutene eta beste auzoei”.

Horren guztiaren atzean, ideia bat nabarmendu dute guztiek: Donostiaren “ultrazentrifikazioa”. Eskuaira eta kar-

taboia era inajinario batean hartuta, solaskide batek zentrifikazioaren mugak markatu ditu hiriaren mapan: Artzain Onaren katedraletik Alde Zaharrera, Easo plazatik erriora, eta Gros *a grosso modo* hartuta; “horixe da postaletako Donostia”. Eta gehitu du: “Exajeratua da hemen gertatzen ari dena”.

Honaino esandakoak irakurle gutxi harrituko zituen, era batera eta bestera hainbatetan adierazi izan delako orriotan. Bada, zentrifikazio horretatik irtenda, Easo plazatik futbol estadiora bidean, Antso Jakitunaren etorbideko lokal bat hartu eta elkartuta, beste era batera antolatzen hasi dira “ohiko eske-metatik” irten nahi zuten artistek.

Ezaugarriei buruz galdetuta, denek nabarmendu dute autogestioa, baita elkarrekin eta sormen-askatasuna ere. “Adar ugaritatik datozen pertsona askoren arteko harremana da, elkarrekin hazteko; proiektu kulturala eta artistikoa, kultura herria delako”.


ASTEARTEKO DILISTAK

Kultura, kontzeptu gisa hartuta, eta Donostia eta Donostiaren hiri-eredua terminoak zeharkatzen diren edozein solasalditan, ezinezkoa da ez aipatzea Donostiaren

2016ko Europako kultur hiriburutzat. “Fenomeno bat izan zen hura”, diote.

Gaia ateratzean fenomeno bat da ia beti jendeak nola eramaten dituen eskuak burura. Inork gutxi esan dezake egitasmo potolo hark bere helburu kulturalak bete zituenik. Manuel Delgado Bartzelonako antropologoak 2015ean esan zuen bezala, “kultura aitzakia gisa” baino ez zen erabili orduko hartan, “amu” moduan soilik, turismoa arrantzatzeko sarea itsasora –are gehiagobotatzeko. Xalba Ramirezek *Irutxuloko Hitza*-n adierazpen horiek eta gehiago jaso zituen erreportaje bikain batean.

Delgadoren hitz horiek ongi lotzen dira Kontenedorako solaskide batek mahai ganean jarri duen ideiarekin: “Donostiako kultur sorkuntzaren dilistak dira Kontenedora”. Eta kontzeptuan sakondu du: “Imajinatu aitzak esango balu sukaldean amari laguntzen diola, baina berez igandeko paella besterik ez duela egiten. Hori da Donostia. Zinemaldia, Jazzaldia, Beldurrezko Zinemaren Astea... Baina astearte batean, zer eskaintza dago hirian? Kulturarako interesa duenak, *turismokeriak* utzita, ez dauka ezer Donostian. Horregatik, asko eta asko, kanpora joan izan gara”.





Elena Scaratti, Lucia Arrieta, Melisa Guerrero, Iosu Del Moral eta Lyndon Baret.

Atzerriko esperientziak Euskal Herrira ekartzeko ahalegin bat da, beste xede eta asmoren artean, Kontenedora espazioa. Euren burua “sistemaren bazterrean” ikusten duten artistek osatu dute elkarte, eta bazkideen bidez finantzatu lokala. Dagokien esparruan, artean, funtzionatzeko molde bertikalak dagoeneko iraulita egon behar lukeela uste dute, eta, nolabait ere, Rizoma paradigma filosofikora urratsak egin: “Ezin du inork agintzen egon, ez baitago dena dakien edo egia absolutua daukan inor. Eredu oso patriarkala da, gainera. Gure moldeetan, uste dugu edonork eragin eta desbideratu dezakeela proiektuaren norabidea. Kultura ezin da goitik behera erein; kultura behean egiten da. Horregatik aipatu dugu lehen kultura herriarena dela. Gure eredia hau da: ezberdintasunei tolerantzia aplikatzea”.

Kultura herritik eta herriarentzat egitea dute helburu, baina gauzak burokraziaren menpean egiteak suposatzen elkarrekin sortzea, bazkideak bilatzea, eta bazkideentzat soilik zabaltzea. Zentzu horretan, beraz, sozioei soilik zuzendutako espazioa da, pribatua dela esango genuke, baina ekintza ugari lo-





kaletik kanpo egin izan dituzte, "kultura garaikideak kalea behar duelako". Bukowski, Dabadaba eta Drop dira horien adibide. Aipatu espazioetan antolatu dituzte literatur emanaldiak, antzerkiak, kontzertuak, arte-erakusketak eta beste hainbat ekintza.

HAMABI HILABETE; BEDERATZI ITXITA

Hain denbora gutxian zabaldu ahal izan duten arren, 700 bazkide baino gehiago lortu dituzte. "Zerbaitegatik da; jendea horrelako espazioen gose zegoelako", adierazi dute solaskideek.

Elkarrizketa egin den unean itxita zegoen espazioa, udalak horrela aginduta. Burokraziaren atzaparretan harrapatu-rik ikusten dute euren burua, nahiz eta baikorrak diren epe motzera begira.

Lokalaren baimenak eta planoak aurkeztuta, ondo egiten ari zirelakoan, irekiera ekitaldia egin zuten 2022ko San Tomas egunean. Hilabete beranduago, bizilagun baten kexaren ondotik, kanpoko patioan edaten eta erretzen ari zirelako, udaltzaingoa bertaratu zen lokalera, eta "ekintzak egiteko lizentzia" eskatu zien. Zur eta lur geratu ziren, halakorik lehenago eskatu ez zirelako.

Udalera jo zuten hurrengo egunean, informazio eske, baina Kontenedorako kideek diotena da lizentzia hori zehazki zer den ez dutela jakin oraindik. Areago, ez dela existitzen diote, harriturik. Izan ere, ezagutzen dituzten antzerako elkarteetan galdetu dute "ditxosozko lizentzia" horren inguruan, eta inork ez daki ezer.

"Udal teknikari bat azken egunera arte eskatzen ari zaigu berak ere zer den oso ongi ez dakien dokumentu bat", adierazi dute solaskideek. Halako batean, kontsulta egindako beste elkarte batzuetako kideen gomendioa jarrai-

AITABITXIRIK EZ

"Hiru ardatz politiko daude Euskal Herrian eta gu ez gaude horietako inoren ildo kulturalen: ez EAJrean, ez PSErean, ezta ezker abertzalearenean ere. Jakina, egitasmorik interesgarrienak azken horien lerroan egin izan dira eta egiten dira, eta oso ondo dago, baina argi esanda, beti daukate bestelako babes politiko bat. Hiru ardatz horietatik kanpo antolatzen garenek zailtasun gehiago ditugu bidean".

APUNTE ZEHATZAK

DEMOKRAZIA?

"Herrialde garatu eta demokratikak gairela uste dugu, harro esaten dugu gainera, baina espazio publikoa ez da inolaz ere demokratikoa. Ezin da ezer egin udalak edo udaltzaingok baime-rik eman gabe. Beraiek ezarritako pautak serie bat jarraitu behar da, bai kalean arte emanki- zun bat egiteko, eta bai, jakina, diru-laguntzak eskatzeko. Ezin da antolatu egungo politikaren zuzentarauarekin bat ez datorren ezer".

tuta, "ekintzen jakinarazpena" aurkeztu zuten udaletxean. Hau da, lizentzia beharrean, jakinarazpena. Eta horren ostean ireki ahal izan zuten -jakinarazpena, izatez, ireki egingo duzula jakinarazteko dokumentua baino ez delako-. Hiru egunera udaltzainak joan zitzaizkien, ordea. "Eta berriz hastera; txiste bat da".

Kontenedorako kideen arabera, sentsazioa dute udalak ez duela horrelako lokalik nahi hirian, nahiz eta, jende askok pentsatuko badu ere, ez dituzten gaueko ekintzak egiten. Gehienez ere gaueko hamarretarako espazioa ixten dutela hitzeman dute. "Ulertzen dut kontzertuak egiteko baimenik ez izatea. Baina dozena bat lagun iluntze batez elkartu, gitarra akustikoa hartu eta kantuan aritzea, kontzertua egitea da?". Elkarrizketatuen arabera, era horretako puntuak jarri dizkie jomugan Donostiako Udalak: garagardo latak bazkideei euro batean saldu izanagatik, "taberna izaera" dutela leporatu diete; pintxoak egin eta bertaratutakoen artean jateagatik,

berriz, "jatetxe izaera"; eta film proiektioak antolatzeagatik ere, "zine izaera".

EKARPENAK EGIN ASMOZ

"Baita turismoan ere", esan du solaskide batek, Berlin, San Francisco eta nazioarteko hainbat gehiago aipatuta, haietan egon badagoelako *underground* turismo kulturala. "Zergatik ez Donostian?", esan du batek. "Ideia apur bat utopikoa", erantzun besteak, eta irri bana egin dute.

Ez dute udalarekin gatazkan ibiltzeko ez betarik ezta asmo politikorik ere, eta horregatik, gehiegi eskatzea ez delakoan, zintzoki diote: "Uste dugu Kontenedora badela, gutxienez, bakean garatzeko eskubidea duen espazio bat, ala?".

Inori traba egin baino, kaleko kulturari eta sorkuntza askeari gehitzera etorri direla azpimarratzen dute. Bueltan, ordea, trabak baino ez dituzte jaso kultur hiriburutzak eskuratu zuen herrian. Baina maitasun dezente ere jaso dute jendearen partetik; horrekin geratzen dira. ●

BI HITZ TABAKALERAZ

Etsaitasunik ez, berez, kultur politiken aro garaikidean Donostiako kaxalotea denarekin. Areago, Kontenedorako kideek, talde zein norbanako gisa, kolaboratu izan dute Tabakalerarekin, eta argi dute hori egiten jarraituko dutela. Arazorik ez zentzu horretan. Eta Tabakalerak funtzionatzen jarraitzea ere nahiko lukete, ez baitira, askoren begiradapean izan daitezkeen gisa, *antisistemak*. "Zentzugabea da hori esatea. Antisistema definitzen den orok sistema batekin amesten du; molde denak sistema lirerateke".

Gauza txarrei beren alde ona begiratzeko ahalegina ere egin dute: "Espero dezagun erakundeek Tabakalera finantzatzeko jarraituko dutela eta diru zaku hori ez dutela Aperribayren enpresak gehiago finantzatzeko erabiliko. Berri txarra litzateke, bestela".

Puntualizazioa dator funtzionatzeko forma eta helburuei dagokienean: "Nahiko genukeena da Elena Scaratti -Kontenedorako kide eta solakidea- edo antzerako kultur ikuspegia eta ideiak dituen pertsona batek kudeatzea Tabakaleraren politikak". Erreportajearen aipatu dugun

astearteko dilisten metafora bide horretan doala esan genezake.

Izan ere, besteak beste, horrelako elefante kultur-politikoek astindu nahi dituzten banderei buruz mintzatu dira, "masen kulturak", behinik behin, jendea nonbaitetik bideratzea duelako xede: "Tabakalerak kultur ekintzak egiten dituenean, demagun, premisa feministekin egingo balu, baliteke premisa horiek gizartearen prezioz ezarriak izatea, kalkuluak eginda beti. Geuk, aldiz, feministak garelako egiten ditugu ekintza feministak".

Influentziari eta eragiteko eta jendea mugitzeko duten gaitasunari erreparatuta, azkenik, Kontenedora proiektuaz harro egoteko moduko sententzia eman dute, berriz ere *astearteko dilisten* metaforara itzulita. "Egia da Tabakalerak astean zehar gauzak antolatzen dituela, baina astearte iluntze batez 25 pertsona elkartzen baditu, horien erdiak sartu dira kanpoan hotza eta euria ari duelako. Poesia ekitaldietan ehun pertsona batu izan ditugu: zorionekoa da guretzat, baina era berean pentsaraztekoa da. Horra hor zeinen gaizki dagoen Donostia".

POETRY ATTACK

Literalki: eraso poetikoa. Eta solaskideen azalpenak literalki hartuta, mamia hauxe: "Inor ez da ideiarene jabe".

Poetry attack edo "poesia errezitaldiak" deituriko egitasmoak dagoeneko hainbat saio egin ditu Egiako Le Bukowski tabernan. Normalki lauzpabost kidek osatu ohi dute kartela, baina emanaldia ez da haienera mugatzen. Ardura dute, dinamizatze- eta ardura norbaitek edo norbaitzuk eduki behar dutelako, baina mikrofonoa jendearena dela aldarrikatzen dute. Edonor igo daiteke bere hitzak errezitatzerara. Aurrez abisatu gabe, gainera. "Mikrofonoa irekita dago momentuan lau lerro okurritu zaizkionarentzat ere bai".

Hainbat balio eta balore sustatzea dute xede: "Publikoak oholtzara igotzeko aukera baldin badu, klasearen eta diferentziaren ordena iraultzen dugu. Inork ez dauka azken hitza; inor ez da hitzaren jabe bakarra".

Egitasmoak izandako erantzunarekin pozik, saioak bikoizteko asmoa adierazi dute.



'PANTOMIMA' IKUSKIZUNA EUSKADI ORKESTRAN

Fantasia bat haurrei, musika klasikoaren ardatzean

Haendel, Bach, Mozart, Vivaldi... haurrentzat ere izan daitezke, zergatik ez? Publiko espezifikoa izan ohi du musika klasikoak, baina ate gehiago ireki ditzake antzezlan edo ikuskizun berezi bihurtuta. Euskadiko Orkestraren Musika Gela egitasmoa *Pantomima* ikuskizuna eskaintzen ari da urtarrileko azken egunetan. Gipuzkoako 3 eta 6 urteko 2.000 haur hartu ondoren, hamabost saiotan, familiei deialdi zabala egin diete astebururako: urtarrilaren 27an Donostian, eta 28an Gasteizen.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  JUANTXO EGAÑA / EUSKADIKO ORKESTRA

Pertsona bat lo dago aretoan; beraz, isilik sartu”, agindu die Euskadiko Orkestrako langile batek autobusetik astrapalaka jaitsi diren dozenaka haurri. Irakasleek taldetxoak osatu dituzte, eta mezua errepikatu dute. Ilaretan jarri dira guztiak, zintzo-zintzo. Harridura handiz begiratzen diote inguruari.

Nahaspila handirik sortu gabe sartu dira guztiak aretora eta koskatxoetan eseri. Segituan jabetzen da bat: ohiko eszenario formatua irauli dute, ikuski-zunerako ongi pentsatuta. Musikariak normalean egon ohi diren lekuan, ilarak pisuka bereizten diren anfiteatroan, jazarri dira ikusleak. Eta behean, eserlekuen zerogarren ilara litzatekeen horretan muntatu dute behin-behineko agertokia. Beraz, behetik gora beharrean, goitik behera ikusten dira antzezleak; 3 eta 5 urtekoen gorputzean jarrita, pare-parean, eta gertu.

Gizonak lo jarraitzen du ohean. Eta, bera jabetu gabe, gelan sartu zaio musikari banda txiki bat. Haendelen *Trio sonata*-ren lehen doinuek esnatu dute, ordea. Goxo, hasieran, ametsetan ari zela pentsatu du, eta segituan hasi da izarren azpian ezkutatu nahian. Zalantzati gero, burua ateratzeari ekin dio, eseri da ohean, ileak tente-tente dituela, eta Bach-en *Arioso* entzunda begiak irekitzen ahalegindu da. Ezinezko zaio, baina. Barrez hasi dira hainbat haur.

Ez dakigu nor den gizonezkoa. Hainbatetan galdetu diot hortaz eta eszenaren kokapenez neure buruari, baina gehiegi konplikatzen hasi aurretik, hobe da pausu bat atzera ematea eta, zer dakit, umeen posizioan jartzea. Logelan dagoela deskribatu, baina baliteke, zergatik ez, presondegi batean kokatzea, eta guardiak borra kolpez esnarazi beharrean, gaurko egun honetan bederen, musikari finen doinuek ematea *egun on-*

ak. Bakoitzak sortuko zuen bere istorioa, eta garatu bizipena, gidoigileak osteko solasean aipatu moduan.

Dakiguna da gizona, behin esnatzeko prozesua gauzatutakoan, mini-orkestra horretara batu dela musikari gisa. Baina ideiarik ere ez dauka musikaz. Kultura magikotik atril bat hartu, eta biolina zelakoan, hura jotzeko keinuak egiten hasi da. Lehenbiziko ilaretakoek ohararazi diote hori ez zela biolina. Gauza bera egin du beste hainbat instrumenturekin. Baita inspektorearena egin ere, triangulua hartuta, eta *The Pink Panther* kantu mitikoaren presentzian. Haur bat oholtzaratu du, eta imintzioka-edo, haur beso guztiak gora, behera, ezker-eskuin aritu dira.

Interakzio eta estimulu askoko goiza izan dute haurrek, baina ondo pasa dute; ikusten zitzaaien aurpegian. Musika klasikora gerturatu eta ikuskizun ederraz gozateko parada izan dute.



Aktorea: Gorka Ganso. Musikariak: Raquel Cortinas, Pascal Laffont, François Proud eta Pedro José Rodríguez.



MUSIKENE

Prestaketa lan handia eskatzen du ikuskizunak, lehen aipatu didazunez.

Helduei, musikari talde on bat jarriz gero, ia edozer gustatu ahal zaie. Baina oso zaila da 3 eta 6 urte arteko haurrei programazio egokia eskaintzea. Ikuskizuna barrutik sentitu behar dute arretari eusteko. Lan handia egin dugu Gorka [Ganso] aktorearekin, pentsatu dugu abestien aukeraketa, haien iraupena, iraupen osoa, kokapena...

Zein funtzio betetzen du Musika Gela proiektuak?

Unean unekoari begiratzen diot nik. Gaur hona etorri diren 200 umeak ez ditugu "konbentzitu" edo "fitxatu" nahi etorkizunean gure publiko izateko. Agian gustatuko zaie noizbait, edo agian ez. Helburua da orain, eta etortzen diren aldiro, zuzeneko ikuskizun batez gozatzeko aukera eskaintzea, eta dibertigarria izatea.

Eta gozatu dute...

Ume bat asko emozionatu dela esan berri dit irakasle batek, ez zuela antzezlea lotara sartzerik nahi bukaeran, ez zuela ikuskizuna amaitzerik nahi. Bakoitzak

Bizipen propioa garatzen du haur bakoitzak

Mikel Cañada giduigilea

bere erara bizi du; bizipen propioa garatzen du haur bakoitzak. Hori da ederrera.

Musika klasikora gerturatzeko modua ere bada, ezta?

Programazioa ikusita, kantu-zerrendari erreparatuta, ez dirudi haurrentzat eginda dagoenik. Haendel, Bach, Mozart, Vivaldi... Gure zeregina konpositore puska horiek haurrengana gerturatzeko da. Eta esan genezake entzun dituztela, behintzat. Jakina, ez dizkiegu

irakatsi nahi musika barrokoaren estiloak eta abarrak, baina belarritik sartu zaie gutxienez, eta aktore batez lagunduta, disfrutatuta dute.

Irratian entzun dut hezkuntza gai bat, pentsarazi didana. Eta neure buruari galdetu diot: "Guk, Euskadi Orkestra gisa, ez badugu hau egiten, nork egingo du?". Jakina, bada jende gehiago antzerako ikuskizunak egiten dituenak, baina geuk abantaila handia daukagu: Euskadiko Orkestrako musikariak daukagu.

Ikastetxeekin elkarlan handia daukazue.

2007an hasi ginen haiekin -lehenagotik egiten dira familia-kontzertuak, haurrei zuzendutakoak-. Urtero-urtero ikastetxe berberak etortzen dira hona, eta hainbat ikuskizun egiten ditugu adin tarte ugarentzat. Beraz, 15 urte dituztenerako, ikasiak akaso ez, baina hainbat kontu entzunak izango dituzte.

Horrez gain, irakasleei gida didaktikoa bidaltzen diegu saiora etorri aurretik, ikasgelan presta dezaten, hainbat bideo, audio, koreografia eta proposamenez jantzia. Pozgarria da emaitza: hona etortzen direnerako badakite arpa edota biolina identifikatzen. ●



LIBURUA

Borrokentzako brebiarioa



ROTE ZORA

ROTE ZORA (ITZULPENA:
DAVID LINDEMANN)

KATAKRAK, 2023

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Les *Damnés de la terre* izan zen 1960 eta 70eko hamarkadetako ezkerreko euskal gazteriaren klandestinitateko brebiarioa. Horixe gogoratu zuen Joxe Azurmendik. Euskal Herriko askapen borrokek zeuzkaten oinarrizko ideia partekatuak biltzen zituen testua izan zen Franz Fanonen lana. Ordutik, brebiario batek baino gehiagok jarraitu dio Fanonenari. Bada, *Rote Zora*k, Katakarak 2023an argitaratutakoak, antzera funtziona dezake.

Irakurtzean behin eta berriro pentsatu dut honek guri ere balio digula. Horratx nire proposamena, beraz. 1974 eta 1995 urte artean iraun zuen emakumeen hiri gerrilla armatu feminista alemaniarrek idatzi zituen testuetan daude egungo Euskal Herriko borrokentzako

oinarrizko ideia partekatu zenbait. Jarraian, adibide sorta.

1. "Legearen araberako borroka ez da nahikoa, ohiko zapalkuntza-moldeak [...] legezkoak baitira". Legearen barnean ekin daiteke eta eskatu ditzakegu dagozkigun eskubideak, baina borrokek legea bera jarri behar dute zalantzan.

2. "Erresistentzia da zapalkuntza nabarmentzen duena". Ez ahaztu erresistentziarik gabe zapalkuntza naturalizatu egiten dela. Betikotu.


3. "Guk ekintzen bidez beste emakume batzuei zirrara bera eragitea espero dugu". Utzi erakargarri izaten saiatzeari eta geure buruak saltzeari. Erresistentziak berak dakar zirrara eta atxikimendua.

4. "Zure autoa erreko dugu, zure lora-tegia suntsitu eta zure txaleta eraitsi. [...]

Agur eta muxu". Ez demonizatu ekintza zuzena. Berreskuratu, eguneratu, praktikatu.

5. "Emakumeon aurkako indarkeria gizonen menderatze-printzipio iraunkor[ra] da eta ez salbuespen[a] [...]. Indarkeria matxistaren aurkako borroka ezin [da] bereizi sistemaren indarkeria guztien aurkako borrokatik". Bortzak ez dira isolaturik gertatzen, zapalkuntza ezberdin oro gertatzen da besteekin txirikordatuta eta horregatik: "Suntsitu eta baztertu[ekin], elkartasuna!".

Hauxe izango da, denbora baterako behintzat, nire azken liburu iruzkina. Kalean elkartuko gara *Rote Zora* besapean. Eskerrik asko irakurtzeagatik, agur eta muxuak. ●



MUSIKA

Gogoeta bat



IBAI ARRIETA



HASIERA BAT

GORKA URBIZU

ONLY IN DREAMS, 2024

XALBA RAMIREZ

2005ean eta 2007an, Banksy artista Egiptotik Gazara sartu zen, tunel sare klandestino baten bidez. Gazako murruan bere grafiti ezagunak egin zituen, apartheidia eta kolonizazioa salatzen.

Ametsa aipatzen duten kanten ordez, zalantza aldarrikatu du Gorka Urbizuk bere bakarleri gisako lehen disko sonatuan, "kanpotik babestuko gaituen txoko eder bat" eskainita. 1980ko hamarkadan Pott bandak egin zuen eran, *anphora hautsi* dela eta, dena posible egiten duen askatasunaren gramatika bilatuta.

Galtzaileak ziren haiek, Sarrionandiak berak kontaktzen du *Moroak gara behelaino artean?*-en: "Irakurlerik ere ez

zegoen eta, desinteres absolutuarekin, mamuentzat idazten genuen". Sabelkeriarik gabe, merkaturik gabe, gramatika bat sortzen lagundu zuten. Euskal literatura bat sortu zuten.

Nondik egiten den. Eta nora. Horra azken aldiaren gehien interesatu zaizkidan galderak, arteari loturik. Ez zait horrenbeste axola zortzi pistetan analogikoan grabatu den, Pedro The Lionen *It's hard to find a friend* dakarren gogora edo Kiwanukaren soinuera.

Artista ez dago derrigortuta erantzun bat ematera. Are gutxiago bat eta bakarra. Baina nago *ezerrezi* buruzko disko eder bat baino gehixeago behar duela garaiak. Galdera solteez harago, badu-

gula elkarri zer esana, eta zer entzuna. Horren gogoz geratu naiz.

Banksyk kontaktzen du nola agure bat hurbildu zitzaion esatera bere pinturak horma edertzen zuela. Konplimendu gisa hartu zuen, gizonak erantzun zion arte: "Ez dugu nahi polita izatea. Horma hau gorroto dugu. Zoaz etxera".

Zorionez, gurean ez dugu, oraindik behintzat, inor etxera bidaltzeko beharrik. Are gutxiago hamarkada luze bere burua berrasmatu, eta milaka zale astelehen buruzuri batean dantzan jartzeko gai den Urbizu (tira, dantzan... esateko modu bat da). Diskoa buklean entzun ostean, edertasun eta baretasun horrek sortu didan *gogoeta bat*, besterik ez. ●



Balleta, zehaztasuna eta ulermena

UXUE GUTIERREZ LORENZO  OLIVIER HOUEIX

Bilbon arte eszenikoen epizentrorik bada, hori Arriaga Antzokia da. Astean hiruzpalau egunetan dago emanaldi bat ikusteko aukera. Antzerkiaren moldeetatik ateratzen diren proposamenak ez dira ohikoak izaten; baina, gabonen bueltan, ballet emanaldiak programatzen dituzte.

Gabonetan ofizialki ez, baina gabonen ondorengo aje garaian programatu dute dantzaldi hau. Ostiral eta larunbat iluntzean Malandain Biarritz Balletak *Urtaroak* proposamena eskaini du. Negu giroa aspaldiko partez Bilbon, larunbat iluntzea eta dantza. Bigarren egunez jarraian bete du Malandain-ek arte eszenikoen epizentroa.

Teloia altxatu eta berehala hasi da espektakulua. 22 dantzari oholtzan. Harmoniosua da koreografia, zehatzak dira mugimenduak, landuak formak eta estetikoak irudiak. Beharbada ez da oso zuzena hau esatea, baina *perfekzioa* eta

edertasuna dira emanaldiak iraun artean buruan iltzatuta izan ditudan hitzak. Dantzariak ez daramatzate ballet klasikoan ezinbesteko diren oin punta zurrunak, tutu zuriak eta kortse estuak. Baina, egia-ri zor, nabari da ezer ez dela ausaz egina. Inprobisaziorako paradarik ez dago, ezta akatserako tarterik ere. Hori du klasi-koak: mugimendua ondo egiteko modu bakarra dago. Antonio Vivaldiren *Lau urtaroak* eta Giovanni Antonio Guidoren *Urteko lau urtaroek* osatu dute Thierry Malandain koreografoaren soinu banda.

Mugimenduen joan etorrietan zeharo murgilduta egon arren, nire burua zerbait gehiagoren bila nabari dut. Baina, zer? Hitzten eta ekintzen bila nabil, antzerki emanaldi bat bailitzan. Antzezlanetan testuak gidatzen du ikuslea askotan (ez beti); eta, hala ez bada, eszena sekuentzien narrazioak. Antzerkiaren kodeak eta narrazio moldeak exijitu dizkiot dantzari. Ez du zentzurik.

MALANDAIN BIARRITZ BALLETA

NON: Bilboko Arriaga Antzokian


NOIZ: Urtarrilaren 20an

Ez gaude ohituta gorputzaren eta musika klasikoaren doinu soilez jantzitako emanaldiak ikustera. Hitzek eta akzioek kontakizunari laguntzen diotela iruditzen zaigu askotan, gure ulermen egarria horrela aseko balitz bezala. Askotan entzun ditut ingurukoak esaten ez dituztela dantza emanaldiak ikusten, ez dutelako dantza ulertzen. Are, ulermen ezaren aitzakian dantza ez dutela gustuko baieztatzen dute askok. Baina, zer da ulertu behar dena? Zer ez da ulertzen? Gorputzaren lengoaiari erreparatzeak zergatik uzten gaitu jokoza kanpo?

Gaurkoan, inori galdetu gabe ere, ziur naiz ikusleek Malandainen proposamena ulertu dutela. Arriagan sekula entzun dudana txalo zaparrada luzeena jaso dute 22 dantzariak. Agian, finean, ulermena ez da hitzetan neurtzen. Gorputz mugimenduek asko dute esateko. ●



Gurutzegrama



Sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | 7 | 3 | | 8 | 4 | | |
| 6 | | | 7 | 2 | 5 | | | 8 |
| | | | | 6 | | | | |
| | 6 | 2 | 9 | 5 | 4 | 7 | 8 | 1 |
| | | 5 | | | 1 | 9 | 2 | |
| | 1 | 8 | 2 | | | 5 | | 4 |
| | 5 | | 6 | | 2 | | | |
| 4 | 2 | 3 | 5 | 8 | 7 | | 1 | 9 |
| 8 | 7 | 6 | | | | 2 | | |

EZKER-ESKUIN:

- 1. Azeria. Hegaztien aho. 2. Argazkiko taldea. Ongi zehaztu gabeko eskualde edo egoera.
- 3. Goragale, botagura. 4. Ezin gehiagozko jatea. 5. Zenbat karta jokotan, hurrenkeraren arabera lehenengo jokatzeara egokitzen zaiona. Zientzia baten aztergaiari bereizten diren moten azterketa eta sailkapena. 6. Atzealde. Norbaitengan atsegina sorrarazi. 7. Bi gauzen arteko espazioan. Zerraldo, hilkutxa. 8. Nekatu. Jantzeko era.

GOITIK BEHERA:

- 1. Sumendietatik jariatzen den materiala. Zalantza partikula. 2. Sasoiara heldu. Adierazi.
- 2. Lurralde bateko etxalde eta lursailen zerrenda ofizial. 4. Ikaskuntza. 5. Guhaur. Norbait erortzeko zorian dagoenean esaten den hitza. 6. Sindikatu abertzalea. Bi gehi bi. 7. Mila aldiz.
- 8. ... atera, sumindu. 9. Kilobyte. Epetan. 10. Bokal errepikatua. Erakunde belikoa.
- 11. Jasangaitz, gogor. 12. Txakurrak. 13. Barik. 14. Zimur. 15. Zerbaiten sortzaile arra.

ERRAZA


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|--|---|---|---|---|
| 6 | 1 | 4 | | | | | | |
| | | | 7 | | | | | 5 |
| | | | | | | | 2 | |
| | 3 | | | | | | | |
| 1 | | 8 | 3 | | 2 | | | 4 |
| 4 | 5 | 8 | | | 9 | 6 | | |
| | | | | | 8 | | 9 | 3 |
| 2 | 7 | | 6 | | | | | |
| 3 | | | 1 | | | 8 | | 2 |

ZAILA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 9 | 5 | 1 | 4 | 7 | 8 | 6 | 2 |
| 2 | 8 | 7 | 9 | 6 | 3 | 5 | 4 | 1 |
| 1 | 4 | 6 | 5 | 2 | 8 | 7 | 9 | 3 |
| 4 | 5 | 8 | 2 | 1 | 9 | 6 | 3 | 7 |
| 7 | 1 | 9 | 8 | 3 | 6 | 2 | 5 | 4 |
| 6 | 2 | 3 | 7 | 5 | 4 | 9 | 1 | 8 |
| 8 | 7 | 4 | 3 | 9 | 5 | 1 | 2 | 6 |
| 9 | 3 | 2 | 6 | 7 | 1 | 4 | 8 | 5 |
| 5 | 6 | 1 | 4 | 8 | 2 | 3 | 7 | 9 |

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Eskutitzen garraioa
- Estalki
- Txalupa mota
- Irmo, sendo
- Arreta, arta
- Momentuko
- Euskal
- Prezio, balio
- Ona, ontasunez betea
- Musika
- Arnegu, amorru
- Mendixka
- Umotasunez

| |
|-------|
| POSTA |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| UMOKI |

EBAZPENAK

DARONANA ETXE KALTE. DAKARRENA ETXE ALDE.

ATSOTZITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 9 | 5 | 1 | 4 | 7 | 8 | 6 | 2 |
| 2 | 8 | 7 | 9 | 6 | 3 | 5 | 4 | 1 |
| 1 | 4 | 6 | 5 | 2 | 8 | 7 | 9 | 3 |
| 4 | 5 | 8 | 2 | 1 | 9 | 6 | 3 | 7 |
| 7 | 1 | 9 | 8 | 3 | 6 | 2 | 5 | 4 |
| 6 | 2 | 3 | 7 | 5 | 4 | 9 | 1 | 8 |
| 8 | 7 | 4 | 3 | 9 | 5 | 1 | 2 | 6 |
| 9 | 3 | 2 | 6 | 7 | 1 | 4 | 8 | 5 |
| 5 | 6 | 1 | 4 | 8 | 2 | 3 | 7 | 9 |

ANAGRAMAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 7 | 6 | 1 | 9 | 3 | 2 | 4 | 5 |
| 4 | 2 | 3 | 5 | 8 | 7 | 6 | 1 | 9 |
| 1 | 5 | 9 | 6 | 4 | 2 | 8 | 7 | 3 |
| 9 | 1 | 8 | 2 | 7 | 6 | 5 | 3 | 4 |
| 7 | 4 | 5 | 8 | 3 | 1 | 9 | 2 | 6 |
| 3 | 6 | 2 | 9 | 5 | 4 | 7 | 8 | 1 |
| 2 | 8 | 1 | 4 | 6 | 9 | 3 | 5 | 7 |
| 6 | 3 | 4 | 7 | 2 | 5 | 1 | 9 | 8 |
| 5 | 9 | 7 | 3 | 1 | 8 | 4 | 6 | 2 |

ERRAZA

LATZ, 12. ORAK, 13. GABE, 14. IZUR, 15. AITZA.
 MILETAN, 8. ONETIK, 9. KB, EPEKA, 10. OOO, OTAN, 11. KASTRO, 4. IKASKETA, 5. GEU, ET, 6. LAB, LAN, 7. GOTIK BEHERA: 1. LABA, OTE, 2. UMO, ESAN, 3. JANZKERA. OSTE, LAKETARAZI, 7. TARTEAN, KATABUT, 8. ENOATU, 3. BOTAGALE, 4. ASBETE, 5. ESKU, TIPOLOGIA, 6. ESKER-ESKUI: 1. LUKIA, MOKO, 2. AMAK, LINBO,

Janire Etxabe

DANTZARIA



HASTAPENA, MODU BITXIAN

"[Barreak] Oso era berezian gertatu zen: Araban eskalatzen nenbilela azpitik bi frantses pasa ziren, eta dantza bertikala egiten ote nenbilen galdetu zidaten. Harrituta, erantzun nien aspertuta nengoe-lako ari nintzela saltoka. Jaisteko esan eta dantza bertikalaren bideo bat erakutsi zidaten. Soka nire pasioa da: dantza hura ikustean maitemindu egin nintzen, 'nik hau egin nahi dut' pentsatu nuen. Diman bizi nintzen orduan, eta bertako pareta batean praktikatzen urratuta bukatzen nuen beti: asunak, zuhaitzak... Mapetan pareta bertikalaren bila jarrita deskubritu genuen Gautegizekoa, eta hara bizitzera joatea erabaki nuen Andrabide harrobitik gertu egoteko, gaur egun Arrankudiagan bizi arren."

"Argi dut nire hazia: euskal kultura eta memoria historikoa dantzaren bidez ezaugarritzea"

Janire Etxabek (1979, Arrankudiaga) dantza bertikala du ogibide: formakuntza eskolak eta ekoizpen propioak uztartzen ditu. 2021ean 'Harria Herria' lana plazaratu zuen, 2022an 'Dendu', eta 2023an 'Geure(R)a'. Aurki aurkeztuko du bere lehen bakarkakoa: 'Antzina'. "Ulertzen dut kultur arduradunen beldurra, baina oso segurua da dantza bertikala", dio. Prekarietatea da arriskua.

IZAR MENDIGUREN COSGAYA

Dantza bertikala duzu ogibide. Zeri diozu bertigoa?

Prekarietateari. Hau dut ogibide, eta hurrengo urteko agenda orri zuria izaten da askotan. Sorkuntza estreinatzen dudan aldiro hustu egiten naiz, eta beldurra sartzen zait: eta orain zer? Ez dago atsedunik. Hasieran hezkuntza eta dantza bertikala uztartzen nituen, baina geroz eta gehiago murrizten nuen jarduna dantzari heltzeko, dantza bertikalaren aldeko apustua egitea erabaki nuen arte.

Sokak lotu edo askatu, zer egiten zaitu?

Bi gauzak. Batetik, askatu: maite dudana egiten dut. Tartean, ebakuntza izan nuen besoan (oso gogorra izan zen psikologikoki), baina errekupe-ratuta nago jada. Dantza eta soka dira nire pasioa, eta horrek lotu ninduen. Lan oso jarraia da gurea: prozesu kreatiboa, fisikoa eta ekoizpenarena. Hasten zarenetik plazaratzera, bidea luzea da: mendira joan, planoak hautatu, gidoia osatu, ahotsak grabatu, musika sortu, eta grabatu, koreografia eratu eta landu... Paretan dena doa segundoka koordinatuta, eta ho-

rrek lanketa handia eskatzen du: paretara jantziekin ateratzeko probak egitea, jauziak une berean bukatzeko gorputz bakoitzaren indarra eta bultzada neurtzea... Entsegu guztiak grabatzen ditugu mugimenduak finitzeko.

Arte diziplina horren 360º daude zure gain. Paretan ez da ikusten atzeko lan guztia.

Imajinaezina da. Emanaldia sortzeko urte eta erdi edo bi behar ditut. Sorkuntza ez da arlo koreografikoa bakarrik: proiektuaren erredakzioa, dosierren prestaketa, aurkezpen bilerak... Ezinezkoa da konpainia mantentzea babes ekonomiko eta sozialik gabe: altuera eta argi teknikariak, segurtasun planak, entsegu guneak, dantzarien entseguak, sorkuntza egonaldiak, jantziteria, komunikazio eta banaketa lana... Hori guztia dago 25 minutuko emanaldiaren atzean, eguneroko lan asko.

Horrez gain, dantza bertikaleko klaseak ematen ditut Gernika eta Gautegiz-Arteagako eskoletan, eta ikastaro trinkoak antolatzen ditut urtean zehar; barruan neguan eta udan



"Hasten zarenetik plazaratzera, bidea luzea da: mendira joan, planoak hautatu, gidoia osatu, ahotsak grabatu, musika sortu, eta grabatu, koreografia eratu eta landu...".

mendietako paretara edo basoetan. Ezin gara ekoizpen eta zuzeneko emanaldietatik bizi, oso prekariora da. Dimegaz da nire proiektu pertsonala; horrekin egiten ditut Harrobi Dantza Bertikala konpainiaren ekoizpenak, proiektu pertsonalak edota film laburrak, eta Dingilizke da formakuntzarako egitasmoa.

Zure lehen bakarkakoa aurkeztuko duzu laster.

Antzina deituko da. Apirilaren 14an izango da aurrestreinaldia Urnietako antzokian, han egingo baitugu azken egonaldi artistikoa. Aurkezpena Bizkaian egin nahi dut ekainaren bueltan, baina toki bila gabiltza, oraindik. *Haize lerroak* dokumentala ere bukatu nahiko nuke eta Bilboko Mendi Film jaialdian estreinatu.

Zer da *Antzina*, orainetik?

Benito Lertxundiren *Altabizkar* kantarekin inspiratu nintzen. Amama oso presente izan dut. Objektu erraldoi batekin aterako naiz, sinbologiaz eta formaz aldatzen joango dena zuzenekoan. Emakumeen burukoarekin egongo naiz:

espainiar inkisizioak burukoa debekatu zuen, eta gure kulturak zer nolako karga duen gizartearen transmititu nahi izan dut horrela. Nerabezaroan, zahartzaroan... etapa bakoitzeko emozioak eta gudak nahastuko dira. Arte Ederrak ikasteak dantza bertikala beste arte plastikoekin fusionatzera eraman nau.

Bien bitartean, *Geure(R)*a-rekin jarraituko dugu, Bilbon Loraldian egongo gara, Euskalduna jauregian, martxoaren 23an. Emanaldietan beti dago agerian gure tradizio eta memoria historikoa. *Geure(R)*a emanaldian, adibidez, sorginen ehizaz ari gara, Toti Martinezen hitzen laguntzarekin, nahiz eta gaur egun emakumeak sutan ez erre, erretzen jarraitzen gaituztela agerian uzten dugu. Artea aldarrikapen sozialerako tresna da, eta artistok gizartearen gertatzen denarekiko haziak jartzeko aukera dugu, eta nire hazia oso argi dut zein den: euskal kultura, tradizioa, eta gure memoria historikoa dantza bertikalaren bitartez ezaugarritzea.

Arrokazalea zara. Natura da zure etxea?

Bai, naturaguneak gustatzen zaizkit sor-kuntzen hasiera espaziorako. Gune batzuk esangura handia dute. Kuttunenak Anboto mendia eta paretara zaizkit; eta entrenatzeko, harrobiak. Hastapen prozesua bakarka egiten dut, normalean, eta denbora asko mendiko paretetan ematen dut.

Ez ditugu eraikinak kaltetzen, ez dugu ia inoiz zulatu. Dantza bertikala edozein herriko paretara edo elizatan egin daiteke. Ulertzen dut kultura arduradunen beldurra, baina oso segurua da. Ikuskitzunik segurtasun berme guztiak dituzte.

Harrobi edo eskoletan, bada harrobirik?

Bai. Harrobi dantza konpainiak harrobia sortu nahi du, horregatik ematen ditugu eskolak. Jende asko ikasteko gogotsu dago Euskal Herrian. Taldeak beteta ditugu eta ikastaro trinkoetara ere asko animatzen dira. Oso positiboa da hori. Guk jendeak dantza bertikalarekin jarraitzea nahiko genuke: ikasi eta sortzeko gogoak jarrai dezala Euskal Herrian, eta euskaratik. ●

“Desegokia”

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Espresioa azken urteotan ur-tarrileko pesimismoa bezain zabalduta dagoenez, O(g)rotariko Euskal Hiztegiara jo nuen, hizkuntzari laharra kendu behar izaten diodan gehienetan bezala. Eta han ikusi nuenak konfirmatu zidan susmoa: hasteko, “desegoki” hitzaren lehen adierak desadostasuna adierazten du –“Suertatzen bazan noiz edo noiz alkarren arteko desegokiren baten bidez [...] anaitasun au autsitzea”, irakurtzen da Juan Ignazio Iztuetaren *Guipuzcoaco condaira edo historia*-n, adibidez-. Baina, jarraitzeko, hurrengo adierak ere, oh sorpresa, ulertarazten dute “desegoki” esatean, sinple sinple, “egokia ez den” zerbait ulertu behar dugula. Ez gutxiago, baina, batez ere, ezta gehiago ere.

Kontua da azkenaldian euskaraz baino gehiago hitz egiten dugula eufemismerez; eta hitz lauak bata bestearen atzetik jarrita zuzen-zuzen bota daitezkeen kontuei ipintzen dizkiegula koltxoi eta manta batzuk, hizkera eternalki lokartzeko oso aproposak izango direnak, baina traba dezente egiten dutenak beste norbaitek entendi dezan zer esan nahi dugun bere gordinean. “Desegoki”, alde horretatik, gama altuko oharrea duzu: esanahi zehatza koman sartzen da hitzarekin kontaktu txikiena edukiz gero.

Pila bat erabiltzen ari garela iruditzen zait. Eta “desegoki” hitzaren erabilera anplifikatu horren eskutik etorri da arrisku handiko esamolde bat ere: “Portaera sexual desegokia”. Sartu espresioa bilatzaileraren batean eta berehala aurkituko duzu albistiren bat –demagan, Boaventura de

Sousa Santos soziologo ezkertiar eza-gunak egindako abusuei buruzkoa; edo Bizkaiko abade batek aisialdiko eskaut taldeetan zebiltzan umeen kontra egindako sexu-erasoez informatzen duena-. Ez da hedabideetara mugatzen izurria, pentsa, psikopatologia eskuliburu batean ere saltatu dit begietara.

Zentzu literalera itzul gaitezen. Berreskura dezagun zentzua. Zapata-denda batean, adibidez, esan ahalko zenuke 41 tailakoak desegokiak direla, normalean 44koak erabiltzen dituzulako: txikiagoa da eta, argi eta garbi, ez zaio zure oinari egokitzen. Interpretazioak libreagoak diren egoeretan ere erabil daiteke, ez pentsa: lehen-dakaria prentsaren aurrean agertuko balitz hauteskondeen data iragartzera buruan piña bat jantzita eta eskuetan

maraka batzuk, zilegi litzateke esatea jarrera nahiko desegokia dela.

Baina bi kasuetan, asuntuak ez luke ondorio legalik. Eros ditzakezu dagozkizunak baino zapata txikiagoak; goi mailako ordezkari instituzional batek egin dezake agerraldi bitxiren bat –izan ere, sail hau egiteko materiala eskainiko ligukeen heinean, eskertuko genioke-. Aldiz, aurreko paragrafoan aipatutako albisteez eraso larrien berri eman zuten, tamalez gehienetan behar bezala ikertu eta erreparatu gabe geratzen direnak. Argiago ikusi nahi duenak, egin ditzake konparazioak: inoiz, inoiz, inoiz ez duzu ikusiko ustelkeria kasu bati buruzko albiste batean “jokaera ekonomiko desegokia” bezalakorik –espero dut; agian norbaiti ideiak ematen ari naiz, glups-.

Bada, sexu-erasoei buruz aritzeko ere, zera iruditzen zait: guztiz desegokia. ●





HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatuz, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozketasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisisa, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

Bi astelehenean behin ARGIA
eta plataforma guztietan



Alter egoaz Aiora Zulaika 'Pirritx'-ekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Otsailak 5, astelehena, 20:00etan argia.eus-en